



KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PLANA

(2016-2019)

EDUKIEN AURKIBIDEA:

1. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusirako plana (2016-2019):
kultura politikaren ikuspegi berriak
2. Gaiari buruzko planak
 - 2.1. Museoen Zerbitzuaren ekintza plana
 - 2.2. Ondare Historikoaren Zerbitzuaren ekintza plana
 - 2.3. Artxiboen Zerbitzuaren ekintza plana
 - 2.4. Kultur Ekintza Zerbitzuaren ekintza plana
 - 2.5. Liburutegien ekintza plana

1. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusirako plana (2016-2019): kultura politikaren ikuspegi berriak

Kulturaren esparrua hainbat sektore eta diziplinak osatzen dute, zein bere itxaropen logikoekin balio-katearen barnean (sormena, ekoizpena, banaketa, etab.), eta, orain arte, kultur politika publikoak batez ere eskaintzara bideratu dira, bereziki kultur azturei begira. Beraz, garrantzitsua da datozen urteetarako oinarri sendoen gainean eraikitako plan bat osatzea, herritarren parte-hartzetik hasita, eragile guztiek batera esku har dezaten kulturaren esparruan.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuaren dinamika berrien testuinguruan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak 2016-2019rako kulturako parte-hartze plana abiarazi du (139/2016 Ebazpena, maiatzaren 12koa, Kultura zuzendari nagusiak emana).

Hauexek ziren prozesuaren **helburuak**:

- Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legea betetzea.
- Herritarrei ezagutaraztea Nafarroako kultur plangintza publikoa.
- Kultur diskurtsoaren eraikuntzan herritarren inplikazioa lortzea.
- Partaidetza handia izanen duen eta esparru guztietako aniztasuna kontuan hartuko duen Kultur Politika sustatzea.
- Komunitatearen garapena gardentasunaren eta partaidetzaren bidez gauzatzea, herritarren beharretara hobeto egokitzeko.
- Zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea eta Nafarroako Gobernuaren plangintza doitzeko entitate parte-hartzaileek egiten dituzten interes publikoko proposamenen bidez.

Prozesuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren parte-hartze planean aurreikusitako helburuak eta faseak bete ditu: informazioko eta kontsultako fasea, erabakitze fasea, jendaurrekoa eta itzulera saioa. Informazioko eta kontsultako fasean, sektore- eta lurralde-saioei ekin zitzaizkien:

- maiatzak 16: Museoak (NAPIko Pío Baroja aretoa).
- maiatzak 17: Artxiboak (Nafarroako Artxibo Nagusia).
- maiatzak 18: Ondare historikoa (NAPIko Pío Baroja aretoa).

-maiatzak 23: Liburutegiak (NAPIko Pío Baroja aretoa).

-maiatzak 24: Kultur ekintza: Ikus-entzunezkoen eta zinematografiaren sektorea (NAPIko Pío Baroja aretoa).

-ekainak 1: Kultur ekintza: Musika (NAPIko Pío Baroja aretoa).

-ekainak 2: Kultur ekintza: Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza) (NAPIko Pío Baroja aretoa).

Prozesuaren bigarren azpifasean (Informazioko eta kontsultako fasearen baitan), **7 lurralde-foro** ospatu ziren. Foro horiek irailean eta urrian egin ziren, honako udalerrri hauetan:

-irailak 19: Tuterak (Almirantearen Etxea-Castel Ruiz).

-irailak 20: Tafalla (Tafalla Kulturgunea).

-irailak 21: Lizarra (Karlismoaren Museoa).

-irailak 26: Iruña (NAPI)

-irailak 27: Doneztebe (Antzinako Zahar-etxea).

-irailak 28: Altsasu: (Kultur etxea).

-Urriak 3: Zangoza (Vallesantoro Jauregia-Kultur Etxea).

Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ildo estrategikoei eta 2016-2019 Planari lotutako parte-hartze prozesuaren bigarren fasea erabakitze fasea izan da: Fase horretan parte-hartzea zehatzagoa izan zen, Nafarroako kultur politikan garrantzi berezia duten gaiak landu zituzten.

Erabakitze saioetan landutako gaiak hauek izan ziren:

-Kultura irisgarria eta ikusgarria izateko erabakitze saioa: urriak 25 (Uharteko Arte Garaikideko Zentroa).

-Araudiari buruzko erabakitze saioa: Mezenasgo Legea eta Kulturarako Eskubide Legea: urriak 28 (NAPI, Blanca de Navarra aretoa).

-Plangintzarako eta kudeaketarako erabakitze saioa: Azaroak 2 (Nafarroako Artxibo Orokorra).

-Araudiari buruzko erabakitzeko saioa: Sektore Legeak: Azaroak 3 (NAPI, Pio Baroja aretoa).

Erabakitzeko fasea amaitu ondoren, Planaren zirriborroa jendaurreko fasean sartu zen. Fase horretan, eta Gobernu Irekiaren webgunearen bidez, dokumentuari ekarpenak egiteko aukera egon zen, eta ekarpen horiek Nafarroako Gobernuko Viana Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ildo estrategikoei eta 2016-2019 Planari lotutako parte-hartze prozesuaren amaierako txostenean sartu ziren.

Eta jendaurreko epearen prozesua amaitu eta gero, eta prozesuaren faseetan egindako 600dik gora ekarpenak sakonki aztertu ondotik, 2017ko urtarrilaren 17an itzulera saioa egin zen, 09:00etatik 11:30era, Nafarroako Museoa. Prozesuaren faseetan parte hartu zuten pertsona eta entitate guztiak deituak izan ziren. Prozesuak 601 ekarpen jaso ditu eta sortutako dokumentazio guztia Gobernu Irekira igo da, baita jasotako ekarpenen erantzunak ere, gaztelaniaz eta euskaraz.

<http://www.gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/1611/proceso-participativo-accion-cultural>

Kultura Zuzendaritza Nagusiaren parte-hartze plan amaitua Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoan (NKPE) sartuko da.

"Nafarroa, lurralde sortzaile eta sormenerako lurralde" leloaren inguruan ardaztuko da datozen urteetan Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren kultura politika. **Kultur politika berri** baten motorra eta **erreferentea** izateko jomugarekin, esparru egokiak bultzatu nahi ditu, zuzenak nahiz zeharkakoak, kalitatezko eskaintza kultural eta artistikoa sortu ahal dadin, diziplina guztietako proiektuei arreta eskaini eta bideragarri izaten laguntzeko eta, halaber, kulturaren munduan sektore guztiek eta herritarrek aktiboki parte har dezaten.

Hurrengo urteetan Nafarroan kulturak funtsezkoa izan behar duela hartuko dugu premisatzat. Kultura zerbitzu publiko moduan irudikatzen dugu; komunitate honetako hiritarren denborarekiko eta lurrarekiko sormena garatzeko aukera ematen duten balio askotarikoen, bidezkoen eta demokratikoen sustatzaile moduan, aurrez ezarritako mugarik gabe eta dimentsio sozial iraunkorrekoa, eta ideien eta haien garapenaren igorle eta hartzaile izateko dugun eskubidean oinarritua.

Gobernutik prisma berri batetik ulertzen dugu kultura, askotariko ikuspegiarekin, lidergoaren posiziotik eta erakunde publikoekin eta kultur entitateekin bitartekotza egin eta partekatze ikuspegiarekin, gizartea komunitate gisa elkartu eta haz dadin, bere

nortasuna aberastuz eta testuinguruan askotariko alderdiak dituen gizarte garaikide batean kokatuz; esate baterako, sormen-prozesuak, lurralde-dinamikak, gizarte-orekak, hezkuntza-alderdiak, ekonomia-fluxuak, etab.

Nafarroako Gobernuaren kultur politikaren diseinuak nafar hiritar guztien eta bakoitzaren irismen irekia bermatu behar du, bai eta antolatzen dituen entitate kolektiboetan ere, lurraldearen eta biztanleen idiosinkrasia kontuan hartuta eta sormen artistiko, adierazpen kultural eta hizkuntzek osatzen duten kultur aniztasunari erreparatuta, lurraldearen barruan eta kanpoan, geure artean eta gainerakoekin kokapen-erlazio iraunkor batera moldatzeko eta eboluzionatzeko.

Parte-hartze prozesuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari kultur politiken diskurtso berri bat ezartzen lagundu dio. Nafarroa nortasun sendoa duen komunitate bat da, gobernantza-eredu propioetan sustraitutako historia duena, baina eboluzionatzen ari dena eta etorkizunari begira dagoena, egunez egun aldatzen den etorkizunari begira. Aldaketa teknologikoen, gizartearen arteko erlazio-eredu berriek, ezin gaituzte substratu aldaezin bihurtu; horregatik da garrantzitsua eboluzio iraunkor eta orekatu bat lantzea, gure balio historikoak errespetatuko dituen -aberastasun handiak direnak, zalantzarik gabe, eta nabarmendu beharrekoak direnak-, baina aurrera egiteko aukera emango diguna. Horren haritik, gaur egun, kultur politikaren formak eta edukiak eraberritu egin behar dira Gizarteak susmatzen duen instituzioek gizartearekin batera egin behar dutela aurrera eta kudeaketa-eredu irekiagoak sortu behar dituztela, arinagoak izateaz gain, planteamendu etikoagoak izango dituen eta kultur ekintza egunerokoagoa, normalizatuagoa, independentea, ohikoa, duina eta berritzailea bihurtuko duena eta gure gizartearen balio atxiki eta besterenezin gisa finkatua.

Kultura ez dira arteak soilik, gizarte gisa finkatzeko eta garatzeko modu bat da; horregatik, kultur politika, gure ustez, sustraitzat hartu behar da, zeharka eta eremu guztiek parte hartzen dutela. Kulturak balio bat, bertako kide izateko zentzua, ematen dio gizarteari, balio kritikoak inplementatzen ditu, eredu ekonomikoak aldarazten ditu, haien jasangarritasuna hobetzen du, lurralde-egituren osaeran eragiten du, eta haren aldeko apustua egiten duten lekuen eta egiten ez dutenen arteko elementu bereizlea da.

Nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela oinarri eta dinamika iraunkorrak ezartzea, etorkizunean gure komunitateko sektore artistikoak eta kulturalak finkatzeko aukera izan dezaten. Kultura Zuzendaritza Nagusiak kultur eragileei aholku emateko eta laguntzeko zeregin garrantzitsuaren ikuspegi garbiarekin egingo du lan, hurbiltasunez,

hiritarrentzat hurbilekoak diren moduak eta metodoak erabiliz, horizontaltasuneko eta lankidetzako dinamikak sortuz.

Zeharkakotasuna beharrezkoa dela adierazi genuen, kulturak, gizarte-kohesioa uztartzen duenez eta baliabide ekonomikoak dinamizatzen dituenek, beste eremu batzuekin elkarlanean aritzea behar baitu, bai gizarte-gaietan zein ekonomia-gaietan. Aniztasuna ezinbestez eta lehentasunez errespetatu behar dela eta orekak bilatu behar direla (lurraldekoa, sektorekoa, linguistikoa eta aurrekontuei dagokiena) adierazi genuen. Eta gure komunitatean benetako kultur ekosistema bat sortzeko borondatea azaldu genuen, globalaz pentsatzekoa lekukoa begien bistatik galdu gabe, sarean lan egitekoa –gure helburu iraunkorra–, eta beste autonomia-erkidego batzuekin eta beste lurralde batzuekin konektatuta lan egitekoa.

Nafarroan kultura birformulatzeko ikuspegi horretatik, epe luzeko kultur politikaren dinamiken oinarriak izan daitezkeenak eraikitzen aurrera egin nahi dugula adierazi genuen, irizpide horiek ahaztu gabe. Irekitasunean, berrikuntzan, hurbiltasunean, eraberritzean eta oreketan irimotasunez aurrera egiteko modu bat dela sinetsita, kultur politikak administrazioaren kontua soilik ez direla jakinarazi genuen, eta administrazioaren lidergoa eta koordinazioa ezinbestekoa dela ahaztu gabe, garrantzitsua dela protagonismo partekatu baterantz jotzea.

Gure komunitatearen garapen ekonomikoan kulturak duen zereginari dagokionez, nabarmendu behar da 2016. urtea erabakigarria izan dela: esan dezakegu sormen-industriak eta industria digitalak une erabakigarri batean daudela, aurrez ezagutu ez duten moduko garapenera bultzatuko dituen abiapuntuan kokatuta, sormen-industriak eta industria digitalak Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) sartu ondoren, Komunitateko lehentasunezko ildo estrategiko moduan, automobilgintzarekin, nekazaritzako elikagaien industriarekin edo osasun-sektorearekin batera.

Azkenik, kultura funtsezko eskubidetzat aitortu beharri dagokionez, jakinarazi genuen lehen urratsak egiten ari garela kultur eskubideei buruzko foru-lege baten proiektua osatzeko.

1.1. Kultura, egiturazko elementua

Nafarroa eskubide historiko propioak dituen lurralde bat da: foruak ditu; nortasun definitua eta historia duen gizartea osatzen du, gure ondare historikoaren berariazkotasunean oinarritua, sistema ekonomiko berezia eta propioa dena. Kultura

banakoaren eta kolektiboaren idiosinkrasiaren berezko zati bat da eta haren garapenaren parte izan da.

Babestu eta zabaldu beharreko kultura bat dugu, bere berezitasunak eta garapen-aukerak dituena; hor datza, kulturaren berezko prozesuaz gain, hari lotutako faktore ugariaren garapena. Hezkuntza, gizartearen ongizatea, kulturak beste kultura batzuekiko duen kokapena, ekonomia, ingurunearekin gaur egun nola erlazionatzen den eta etorkizunean nola erlazionatuko den oso alderdi garrantzitsuak dira.

Ezin dugu kulturaren pentsatu Gobernu sail bat balitz bezala edo arteen edo eremuen bilduma gisa, eguneroko errealitateko geruza guztien artean dabilen funtsezko zerbait balitz bezala baizik. Kultura elementu propioen ekosistema bat bere baitan duen paisaia bat da, gure garapenaren alboko alderdi guztiekin zerikusia duena.

Lurralde baten sormena ekonomiaren, bizikidetzaren edo osasunaren garapenaren gaitasunarekin batera doa, eta horiek guztiak esponentzialki txikitzen dira kultura ondasun txikiagotzat hartzen den heinean. Beraz, kareorearen gainerako eremuak kohesionatzen dituen ondasun komuna da, batzuetan hain fina, gure sistemaren zutabeen euskarri hautemanezina dela ahazten baitzaigu.

Esan dezakegu, horrenbestez, kultura baliabidez hornitzeak haren langileak duin bihurtzeaz gain, historia gordetzen duela, arteak zabaltzen dituela edo gizarte aberasten duela. Eta, horrez gain, banakoen komunitatea kohesionatzen du, eta gizarte komunaren kontzeptua sortzen du horrela.

Kulturaren balioa zientziaren balioa da, gizarteari berritzeko eta talentuei laguntzeko aukera ematen diena; hezkuntzarena, garapenari ezagutzak ematen dizkiona; osasunarena, hiritar guztien bizi-kalitatea bermatzen duena, gizarte osasuntsu eta kritikoa sortuz; ekonomiarena, kulturaren eta zientziaren diskurtsotik aplikaziorako prototipoen eta ideien oinarria hartzen duena. Kulturak jasangarritasun, irisgarritasun, kultura-artekotasun eta elkartasun balioak nabarmentzen ditu, gizarteak sistema bidezkoagoak bihurtzen dituztenak.

Gizarte baten kultur bizitasuna, aniztasuna eta kulturarako irisgarritasuna ez dira milaka milioitan soilik neurtzen, baizik inklusio-ratio, nortasun, bizikidetzaz, partaidetzaz, sormen, egokitasun, asebetetze, ilusio eta zoriona ere neur daitezke. Seguruenik, alderdi horiei guztiei adierazle ekonomikoak esleitzeko gai izango bagina, gizarte- eta ekonomia-errentagarritasuneko ratorik altuenak lortuko genituzke.

1.2. Kultura, lidergo partekatua

Gobernuak kulturarekiko duen ardura lehentasunezkoa eta funtsezkoa da, baina ez du izan behar ez bakarra ez bertikala haren dimentsio guztian.

Kultura kudeatzeko moduak hiritarren errealitatera hurbildu behar du. Lidergo eskuzabala eraginkorragoa da kulturari buruz hitz egitean, sare arinagoak sustatzen dituelako, emaitza hobek sortu eta sektorea dinamizatzen duelako, geruza aberatsagoak sortuz, beren ideien fluxua eta haien kudeaketa txikiagoa izateko aukera emanez.

Nafarroako Gobernuak ohikoagoak eta zabalduagoak diren diskurtsoetan oinarritutako dinamika horizontalagoak ezarri nahi ditu kultur gaietan, administrazioan iragazkortasuna onartuz, kulturaren praktika dimentsio anitzetan arinduko duten ekipoak eta sareak sortuz.

Entzute aktiboak, baliabideen kudeaketa arduratsua egiteko gaitasunak eta banakoen eta erakundeen autonomiari laguntzeko jarduerak kultur aberastasuneko eta garapeneko prozesuak sortzen ditu, sistema bertikaleko eta lidergo bakarrekoak baino zabalagoak, eta artistak, kultur eragileak eta hiritarrak protagonista bihurtzen ditu.

Horren haritik, informazioa erraztea, parte-hartze prozesuak, kudeaketako ekipoak eta eredu berriak sortzea, eta anitzagoak diren erakundeetan parte hartzeko egiturak garatzea ekintza positiboa eta lehentasunezkoa da.

1.3. Kultura, errealitate berria: konplexuagoa, hibridoagoa eta eraldatzen ari dena

Gaur egungo gizartearen kodeak oso azkar aldatzen dira. Aldaketa horiek denborarekin soilik hautematen dira, gure egunerokotasunean gehienetan ez dugu hautematen eboluzio iraunkor hori, eta denbora hori distortsionatuta agertzen zaigu teknologia berrien eta aldaketen abiadura zorabiagarriaren eraginez. Beraz, pentsatu behar dugu jarduteko gure moduak gaur egungo gizarteak behar dituen *inputekin* eta moduekin batera egin behar duela aurrera.

Administrazioak garai berrira egokitu behar luke, eta hiritarrek eskatzen duten heinean eboluzionatu. Gure ikuspegitik, uste dugu ezarritako ereduak gaindituko duten kudeaketa-eredu berriak behar direla, pixkanaka kudeaketa-formula berriak sortzeko, partekatuak, kulturaren eragile berriek parte hartzeko eta administrazioaren eta

herritarraren arteko beste erlazio-modu eta -fluxu batzuk sortzeko. Uste dugu administrazioaren ereduak eta artearen eta kulturaren sektoreko erakundeen, profesionalen eta pertsona adituen parte hartzeak Nafarroako kultur dinamikak aberastu eta hazarazi dezaketela.

Kulturaren kudeaketa-eredu berriak (lehiaketa publikoak, programa-kontratuak, kultur politiken geruzak eta substratuak, komisariotzak, zuzendaritza artistikoak, artista elkartuak, bitartekariak eta abar sortzea) ezinbestekoak dira etapa honetan eta adituei gizarte zibil, artistiko eta profesional gisa kultur arloko politika publikoetan ekarpenak egiteko aukeraren egunerokotasunean kokatu behar dira.

Kulturaren balioak, gaur egun, gizartearen eta hiritarren egunerokotasunaren alderdi guztiak aberasteko berezitasuna eta gaitasuna nabarmendu behar ditu. Kultur politikak hiritar guztiak kontuan hartu behar ditu, salbuespenik gabe. Baina, hiritarren zati ahulena, baliabide gutxien duena edo zailtasun handienak dituena babesteko politiketan sakondu behar du, eta modu jarraituan eta iraunkorki kultur prozesuen garapenean sartutako irisgarritasun-neurriak sustatu behar ditu, eta hobetzeko eta laguntzeko neurriak inplementatu, irismen hori zailagoa duten hiritarrentzat.

Kultur gaien jasangarritasunak eta politika publikoetan oreka bilatzeak lehentasunezko helburuak izan behar dute; eta horretarako, diskurtso integratzaileak, komunak eta elkarlanekoak sortu behar dituzte, kulturaren garapenaren erritmoak ez ditzan abiadura desberdinak izan Nafarroako emakume edo gizon izateaz kanpoko faktoreen mende. Ildo horretatik, garrantzitsua da kulturako langileei behin-behinekotasunetik alde egiteko aukera emango dien eta hiritarrei kulturaren partaide aktibo diren aldetik duintasuna lortzeko aukera emango dien ekintzak sustatzea.

Azkenik, jabego intelektualaren babes-sistemetan arbitro-lanak egin behar dira, eta egile-eskubideak zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzeko ekintzak.

1.4. Kultura praktika gisa

Kultur politikak ez du izan behar ekintza bat soilik, hiritar guztiek ezagutzen duten plangintzako eta kudeaketako tresna bat baizik. Beraz, garrantzitsua da hartan plangintza-elementuekin lan egitea, aurrekontuak eta metodologiak modu optimo eta orekatuan kudeatu ahal izateko, baliabideak hiritarrei itzultzeko zentzu demokratikoarekin eta sektore artistiko eta kulturalen garapena hobetzea pentsatuz.

Politika publikoek praktika eraginkorrak eta gardenak ezartzeko balio behar dute, eta kultur ekintza modu jasangarri, anitz eta unibertsalean modelatzeko gai izan behar dute.

Gardentasunak praktika jarraitua izan behar du. Kultur politikak irekitasunez partekatzeak prozesuak aberasten ditu, proiektuei eta zerbitzuei buruzko informazioa ematen du, eta administrazioaren eta herritarren arteko erlazioa demokratizatzen du.

Epe luzeko plangintza estrategikoa ez da beharrezkoa kudeaketa publikoaren ardura eta gardentasun handiagoa lortzeko bakarrik, baizik ebaluazioa gaitzen eta errazten du, eta horrenbestez, kudeaketa politikoaren kontuak ematea ere bai. Plangintza egiteak lehentasunak eta orekak ezartzeko aukera ematen du.

Maila guztietan jardunbide egokietan oinarritutako kultur politika, eguneroko ekintzat hartutako jardunbideak, zehatzak eta eremu guztietara zabalduak, elkarlan-prozesuak, genero-berdintasuneko politikak, partaidetza, irisgarritasuna, jasangarritasuna eta informazioa kontuan hartzen dituen administrazio publikoaren aldetik ardura eskatzen duten ekintzen bildumatzat hartuak. Jardunbide egokien politika administrazioaren maila guztietan ezarri behar da, bereziki administrazioak hiritarrekiko ekintza iraunkorra duenetan, dimentsio anitzeko irisgarritasuna izanik beti, maila praktikoan zein araudi-mailan.

1.5. Kultura prozesu gisa

Kultura, berez, dinamikoa da, sortzailea, etengabe eraikitzen ari dena. Ondasunaz edo kontserbazioaz ari garenean ere, helburu jakin batekin, erabilera batekin edo helburu sortzaile batekin egiten dugu beti. Ez dugu planteatzean liburuak gordetzea, gordetze hutsagatik, norbaitek etorkizunean erabili ahal izateko baizik. Ez dugu gordetzen ondarea suntsi ez dadin soilik, ondoren beste batzuek hartaz gozatzeko aukera izan dezaten eta ezagutuz, errespetatu eta beren nortasun kolektiboaren parte direla senti dezaten. Hartara, adierarik kontserbadoreenean ere, kulturak ekintza-dinamikak eta prozesuak bildu behar ditu. Emaitzak garrantzitsuak dira, baina prozesu kulturalak eta artistikoak dira dinamika sortzen dutenak eta kulturaren kultura egiten dutenak.

Kultura prozesu gisa ulertzen dugunean, “kultura egitea” eta “kultura kontsumitzea” desberdinak direla hartzen dugu kontuan. Ez dugu kultura helburutzat hartzen, prozesuan dagoen praktikatzat baizik. Kultur politikaren ikuspegitik, sortzearen parte hartzeak kontsumoarekin berarekin partekatutako lehentasun bat izan behar du;

ikuspegi bikoitza: sortzea eta ikusle izatea. Binomio horren orekak kulturaren zati sozialaren, sortzailearen eta ekonomikoaren sinergia bateragarriak eskaini behar ditu, eta haiek guztiek elkarrekin bizi eta elkarren osagarri izan behar dute. Horrek kulturaren ideia kolektiboarekin bat datozen balioak eta praktikak dakartza. Kultura baten parte izatea balio horiek eta praktika horiek partekatzea da.

2. Zerbitzuen planak

2.1. Museoen Zerbitzuaren ekintza plana.

1. Ikuspegia

Foru titulartasuneko hiru museoak (Nafarroako Museoa, Karlismoaren Museoa eta Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa) Nafarroako kultura eta turismo eskaintzan erreferente sendoa eta ezinbestekoa izatea nahi du Museoen Zerbitzuak.

Era berean, Nafarroan museoen sektore indartsu eta kohesionatua izatea nahi du, eta ahalik eta erakunde gehien sartzea Museoei buruzko Foru Legearen esparruan.

2. Helburuak

2.1. Museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako eraikinak, funtsak eta edukiak herritarrendako irisgarriak eta ikusgarriak direla bermatzea.

2.2. Azkar eta eraginkortasunez erantzutea herritarrek museoetako zerbitzuei buruz egiten dituzten eskaerei.

2.3. Museoen programa publikoa herritarrei begira egitea, herritarren jakin-nahi eta interesei erantzuteko. Horretarako, parte-hartzerako bideak irekitzea, eta elkarren arteko ezagutza eta lotura ahalik eta estuena bilatzea.

2.4. Behin betiko konponbidea ematea Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoari, azkenik jendearendako ireki dadin, sortu eta 20 urtera.

2.5. Nafarroako museo sektorea epe ertainerako planifikatzea, estrategiak prestatzerakoan sektorearen parte-hartzeari tokia emanez.

2.6. Nafarroako kultur ondare immateriala ezagutzea eta kudeatzea.

3. Estrategiak/ardatzak

- 3.1. Nafarroako museoetako bildumak eta bilduma museografiko iraunkorrak osatzen dituzten funtsetarako sarbidea ematea herritarrei DOMUS inbentarioaren eta CER.ES online katalogo kolektiboaren bidez.
- 3.2. Museoetako barne prozesuak eta prozedurak hobetzea normalizazioaren, sinplifikazioaren eta talde lanaren bidez.
- 3.3. Museoak gaurkotzea: bildumak, edukiak, transmisio moduak, jarduerak eta irudia.
- 3.4. Nafarroako Museo Etnologikoa zer motatako museoa izanen den zehaztea eta kokalekurik egokiena erabakitzea.
- 3.5. Museoei buruzko Legearen diagnosia egin eta museoen sektorea planifikatzea, araudia, hitzarmenak eta diru-laguntzak aztertuz eta, beharrezkoa bada, birbideratuz eta, orobat, sektoreko eragileek parte hartzeko bideak irekiz.
- 3.6. Nafarroako Kultur Ondare Immaterialaren Inbentarioa abiaraztea.

4. Ekintzak/mugarriak

- 4.1. Hiru museoen bildumak DOMUSen digitalizatzea eta inbentarioak online ikusteko modua ematea CER.ES plataformaren bidez.
- 4.2. Nafarroako Museoko erakusketa iraunkorreko bildumak eguneratzea: arkeologiakoa, numismatikakoa eta arte garaikidekoa.
- 4.3. Nafarroako Museoko harrera gunea eraldatzea bisitarien beharrei erantzuteko eta hiru hizkuntza sartzeko: gaztelania, euskara eta ingelesa.
- 4.4. Museoetako molde didaktiko berriak, eta museoen eta eskolen arteko harremana. Material eta jarduera berriak diseinatzea.
- 4.5. Museoek urtero baterako erakusketa bat programatzea Nafarroako arte garaikidearen inguruan.
- 4.6. Karlismoaren Museoko Dokumentazio Zentroa zehaztea eta garatzea.
- 4.7. Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikorako proiektu berria.

4.8. Nafarroako Kultur Ondare Immaterialaren Inbentarioa garatzea: plan zuzentzailea, inbentario aurrekoak eta inbentarioko faseak, inbentarioa online argitaratzea barne.

4.9. Nafarroako beste museo eta bilduma museografiko iraunkor batzuei diru-laguntzak eta museologia kontuetarako laguntza ematea.

4.10. Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legearen diagnostikoa eta berrikuspena.

2.2. Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuaren ekintza plana.

1. Ikuspegia

Nafarroako Artxibo Sistema bultzatzeko esparru sendoa zehaztea, bide batez, Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistema indartu dadin, bereziki, herritarrei begira eta dokumentu ondarea sortu zein kontsultatzeko teknologia berriak erabiltzera bideratuta, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak eta Nafarroako Artxibo Garaikideak garatutako jardueri dagokienez.

2. Helburuak

2.1. Nafarroako dokumentu ondarearen balioa nabarmentzea.

2.2. Nafarroako Artxibo Sistema sendotzea, bereziki toki entitateen dokumentu ondarea zaintzeari eta hedatzeari dagokionez.

2.3. Zerbitzuaren jardunean dokumentu ondarearen eginkizun pedagogikoa eta hedapena sartzea. Nafarroako Errege Artxibo Nagusia eta Nafarroako Artxibo Garaikidea, hitzarmen bidez, Hezkuntza Departamentuarekin batera arituko dira.

2.4. Artxibo elektroniko seguru bat martxan jartzea, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura, ondare digital adierazgarri baten kontserbazioa eta hartarako sarbidea bermatu daitezen.

3. Estrategiak/ardatzak:

3.1. Nafarroako dokumentu ondarea zaintzea eta hedatzea.

3.2. Nafarroako Artxibo Sistemaren buru gisa, legediak esleitutako eginkizunak eraginkortasunez betetzea.

3.3. Artxibo Digitala eta Artxibo Irekia garatzea eta sustatzea.

4. Jarduera eremuak:

4.1. Nafarroako Gobernuaren Artxibo Sistemako "arduradun" gisa dagozkion jarduketak.

4.2. Nafarroako Gobernuaren Artxibo Sistemako "buru" gisa dagozkion jarduketak.

4.3. Herritarrendako jarduketak.

5. Ekintzak/erdietsi nahi diren mugarriak:

- Nafarroako Gobernuaren Artxibo Sistemaren esparrua
 - Hondamendiei aurre egiteko plan bat prestatzea
 - Administrazioaren Artxiboa - Nafarroako Artxibo Garaikidea delakorako plan zuzentzailea prestatzea
 - Foru Komunitateko Administrazioan, Artxibo Digitala bultzatzea
 - Artxibo digital segururako tresna bat bultzatzea, Nafarroako administrazioen eskura egon dadin
 - Nafarroako toki entitateen artxiboen gainean jarduteko plana prestatzea
 - Prestakuntza planak zehaztea
 - Nafarroako Artxiboen Erregistroa, Mapa eta Errolda sortzea
 - Hedapenerako programa bat prestatzea
 - Aldi baterako erakusketak

- Aldi baterako erakusketekin loturiko lantegiak, hitzaldiak eta beste jarduera batzuk
- Mikroerakusketak
- Beste batzuk: herritarren lankidetzarako ekimenak, ate irekien jardunaldiak, hitzaldiak, ikertzaileekin egindako topaketak, sare sozialetan hedatzea...
- Programa pedagogiko/didaktiko berri bat presatzea
- Katalogazioa eta internet bidezko hedapena (Artxibo Irekia) bultzatzea
- Euskadi eta Paue-Baionako artxiboekin lankidetzak, elkarren intereseko gaietan
- European presentzia izatera bideratutako deskripzio plan bat prestatzea

2.3. Ondare Historikoaren Zerbitzuaren ekintza plana

1. IKUSPEGIA:

Gure ondare historikoa gizarteari hurbiltzea eta gizartea haren zaintzan, erabileran eta kudeaketan inplikatzea. Herritarrek ondare historikoa ezagutzeko, hartara iristeko eta hura erabiltzeko eskubidea dutela onartzea eta eskubide hori garatzea.

Bi **premisak** ematen dute ikuspegi hori gauzatzeko euskarria eta bermea:

1. Aldez aurretik **ezagutzea, inbentariatzea eta ikertzea** ondare historikoa osatzen duten elementuak.

2. Ondare historikoa **babestea, kontserbatzea eta zaharberritzea**.

2. HELBURUAK:

1. Osatzen duten elementuak identifikatzea.
2. Babesa. Ondare historikoaren ezagutza handitzea ondare historikoari buruzko legediaren bidez.
3. Ondare historikoa kontserbatzea eta zaharberritzea.
4. Ondare historikoa kudeatzea, hedatzea eta jendarteratzea.

3. ESTRATEGIAK/ARDATZAK:

- Ondare arkitektonikoaren inbentarioa (12.000 elementu inbentariatuta):
 - Web bidezko sarbidea.
 - XX. mendeko ondasunak sartzea.
- Ondare arkeologikoaren inbentarioa (7.982 elementu inbentariatuta):
 - Sakanako eta Urbasa eta Andia mendilerroetako ondare arkeologikoa inbentariatzea.

- Ondasun higigarrien katalogoa (6.805 deklaratu dira Interes Kultureko Ondasun edo Ondasun Inbentariatu):
 - Urtean 1.000 ondasun katalogatzea.
- Interes Kultureko Ondasunen eta Ondasun Inbentariatuaren deklarazioak (18.619 deklaratu dira administratiboki. Kalkuluaren arabera, legearen aginduz 80.207ri dagokie deklarazio hori).
- Urtean 400 ondasun deklaratzeko, espediente administratiboaren ondotik.
- Ondasun Kultureko Erregistroan inskribatutako ondasunen kopurua handitzea (3.942 daude inskribatuta).
- Txostenak eta baimenak ematea:
 - Txostenak egitea lurralde antolamendurako tresnei buruz eta ingurumen ebaluazioaren mende dauden proiektu, programa eta planei buruz.
 - Txostenak egitea hirigintzako udal planeamenduari buruz.
 - Txostenak egitea ondare historikoko ondasun higiezinetan egin beharreko jarduketara eta esku-hartzei buruz.
 - Indusketen Urteko Plana eta esku-hartze arkeologikoetarako baimenak tramitatu eta kudeatzea.
 - Txostenak egitea ondare historikoko ondasun higigarrietan egin beharreko jarduketara eta esku-hartzei buruz.
- SITNAn, ondare historikoaren gaineko informazioa eguneratzea.
- Open data Navarran, Interes Kultureko Ondasunen datuak sartzea.
- Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioaren webgunea eguneratzea.
- Turismoko webgunean eskuragarri dauden Interes Kultureko Ondasunak handitzea, bisita-orduei buruzko informazioa emanez.
- Nafarroako Gobernuaren webguneetan edo intranetean, ondare historikoaren inbentarioei buruzko eta, oro har, ondare historikoari buruzko informazioa sartzea.
- Ondare historikoari buruzko "App" bat diseinatzea.

- Ondare historikoaren gaineko hezkuntza plana prestatzea.
- Toki entitateei eta beste entitate batzuei aholku ematea eta haiekin elkarlanean aritzea, haien webguneetan agertuko diren ondareari buruzko edukiak zehazteko.
- Turismo gaietan eskumena duten organoekin elkarlanean aritzea ondare historikoarekin lotura duten ibilbideak prestatzeko.
- Interes kulturalako ondasunak bisitatzeko eta erabiltzeko urteko programazioa.
- Egiten diren esku-hartzeak eta beste gai interesgarri batzuk ezagutarazteko ekintzak.
- Ondarearen gaineko jardunaldiak egitea urtero.
- *Toki entitateei eta beste entitate batzuei aholku ematea eta haiekin elkarlanean aritzea, haien webguneetan agertuko diren ondareari buruzko edukiak zehazteko.*
- *Turismo gaietan eskumena duten organoekin elkarlanean aritzea ondare historikoarekin lotura duten ibilbideak prestatzeko.*
- *Interes kulturalako ondasunak bisitatzeko eta erabiltzeko urteko programazioa.*
- *Egiten diren esku-hartzeak eta beste gai interesgarri batzuk ezagutarazteko ekintzak.*
- *Ondarearen gaineko jardunaldiak egitea urtero.*
- *Tokian tokiko ondare historikoa ezagutarazteko eta jendarteratzeko ekintzak.*
- Tokian tokiko ondare historikoa ezagutarazteko eta jendarteratzeko ekintzak.

2.4. Liburutegien Zerbitzuaren ekintza plana.

1. Ikuspegia:

Nafarroako Liburutegien Sistema antolatu, egituratu eta kohesionatzea, zentro, baliabide eta zerbitzuen antolakundea den aldetik, komunitateari gizarteratu, kulturizatu eta herritartzeko espazioak eskaintzeko.

Liburutegi sistema sendo, kohesionatu eta koordinatua eratzea, Nafarroaren lurraldetasunari eta ezaugarri demografiko, sozial eta linguistikoei egokiturik.

Nafarroako Liburutegien Sistemak behar diren adostasunetara iritsi beharko du toki entitateekin, administrazioen erantzunkidetasunetik abiatuta zerbitzu publiko sendo, trinko eta kohesionatua osatzeko.

Nafarroako Liburutegien Sistemak funtsezko bi oinarri ditu, desberdinak baina osagarriak: Nafarroako Liburutegia eta gainerako 92 liburutegi publikoak. Nafarroako Liburutegiak lehen mailako erreferente izan behar du, Nafarroako *liburutegi nazional* moduan betetzen duen eginkizunarekin jarraituz eta, Nafarroako liburutegi publikoa izaki, ematen dituen zerbitzuak hobetzeko lan eginez. Liburutegi Publikoen Sareko liburutegiek, aldiz, herritarrendako hurbileko gune eta, orobat, gizarteratzeko eta elkarrekintzarako gizarte gune bihurtu beharko lukete, informazio, prestakuntza eta aisiako baliabide eta zerbitzuen eskaintza egokiarekin.

2. Helburuak:

2.1. Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema indartzea, adostasunez erabakitako antolamenduko eta legediko tresnekin.

2.2. Antolamendu egitura eta plantilla organikoa egonkortzea, kohesionatzea, finkatzea eta handitzea.

2.3. Informaziorako baliabideak herritarren beharren neurrira handitzea, dibertsifikatzea eta egokitzea.

2.4. Liburutegietan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera handitzea eta sendotzea.

2.5. Liburutegien ekintza gizarteratzea eta ikusaraztea.

2.6. Ondare bibliografikoa eta filmografikoa handitzea, zaintzea, hedatzea eta ikusaraztea.

2.7. Nafarroako Liburutegia lehen mailako erreferente bihurtzea.

2.8. Ekipamenduen funtzionamendu iraunkorra lortzea: Nafarroako Liburutegia

2.9. Liburutegi publikoetako funts dokumentalak tratatzeko eta automatizatzeo prozesua amaitzea eta normalizatzea.

3. Estrategiak/ardatzak:

- Herritarrendako hurbileko zerbitzu publiko diren heinean, liburutegiek duten balio soziala eta ekonomikoa nabarmentzea.
- Liburutegien errealitatea eta lurralde esparrua ezagutzea, progresiboki kudeaketa deszentralizatzeko eta eskualde bakoitzaren berezitasunetara egokitzeko.
- Giza baliabideen osaera eta ezaugarriak aztertzea eta ikertzea.
- Aliantzak eta estrategiak ezartzea gizarte eta kultura esparruko eragile eta entitateekin, bereziki hirugarren sektorearekin.
- Aliantzak eta estrategiak ezartzea gizarte zerbitzuetan eskumena duten foru eta toki administrazioko arduradunekin.
- Lankidetzan eta elkarlanean aritzea, Nafarroa barruan eta Nafarroatik kanpo.
- Genero-berdintasunaren ikuspegiarekin lan egitea.
- Jarduketa edo ekintza orotan euskara sartzeari, bereziki herritarren hizkuntza nagusia den eremuetan.

4. Ekintzak:

Liburutegien Zerbitzuak eginen dituen ekintza zehatzak

- **Liburutegien Sistema kohesionatzearekin, koordinatzearekin eta indartzearekin lotuak**
 - Nafarroako liburutegien zentro, baliabide eta zerbitzuen liburutegi mapa eguneratzea (2016).
 - Eskualde mailako lantaldeak sortzea, kudeaketaren deszentralizaziotik abiatuta elkarlanean aritzeko, proiektuak eta ideiak partekatuz.
 - Lesakako liburutegia altzariz hornitzea (2016).
 - San Adriango liburutegia altzariz hornitzen bukatzea (2016).

- Nafarroako Liburutegiak funtzionamendu merkeagoa eta iraunkorragoa izan dezan, azterlanak egitea, neurriak proposatzea eta behar diren jarduketak burutzea (2016).

■ **Araudiarekin eta kudeaketa tresnekin lotuak**

- Eguneratutako hitzarmen eredu bat prestatzea, liburutegien kudeaketa toki administrazioekin partekatzean oinarrituta. (NUKFaren inplikazioa)
- *Liburutegi publikoek zerbitzu emateko jarraibideak* berrikustea eta egokitzea (2016).
- *Nafarroako Irakurketaren Mapa* berrikustea eta egokitzea (2017-2019).
- *Zerbitzuen Gutuna* eguneratzea (2016).
- *Liburutegiei buruzko Lege* berria proposatzea (2018-2019).

■ **Giza baliabideekin lotuak**

- Liburuzain berrien *Harrerarako eskuliburua* prestatzea (2016).
- Hautapen probak egitea lanpostu hutsak betetzeko eta sor daitezkeen ordezkapen beharrei erantzuteko (2016).
- Komunikazioak prestatzea liburuzain guztiei Liburutegien Zerbitzuak burutzen dituen jarduketan berri emateko. Aldizkako komunikazio normalizatuak.
- Prestakuntza, informazio eta parte-hartze jardunaldiak antolatzea.

■ **Beste liburutegi eta dokumentazio zentro batzuekin elkarlanean eta lankidetzan aritzearekin lotuak**

- Lehentasunez, baterako ekintzak zehaztea liburutegi espezializatu hauekin: Museoen Zerbitzukoak (Nafarroako Museoa, Karlismoaren Museoa eta Nafarroako Museo Etnologikoa) eta Artxiboen Zerbitzukoak (Nafarroako Errege Artxibo Nagusia eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxiboa).
- Harremanak ezartzea eskoletako eta unibertsitateetako liburutegiekin, liburutegi espezializatuekin eta dokumentazio zentroekin.

- Lantalde eta ekimen profesionaletan parte hartzea, Nafarroan eta Nafarroatik kanpo, Espainian zein Europan.
- Aktiboki parte hartzea eta elkarlanean aritzea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioako Liburutegien Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusiaren mendeko Liburutegien Koordinaziorako Kontseiluko lankidetzaren organoetan: osoko bilkuran, batzorde teknikoetan eta lantaldeetan.

Ondare bibliografiko eta filmografikoaren eta lege gordailuaren gaineko ekintza zehatzak

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin hitzarmen bat sinatzea Ondare Bibliografikoaren Katalogo Kolektiboaren parte izateko.
- Ondare bibliografikoa digitalizatzeko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren laguntzen deialdian parte hartzea.
- Biltegi digitalaren edukiera handitzea, ondare bibliografikoa, ikus-entzunezkoa eta dokumentala biltzeko.
- Nafarroako Liburutegi Digitala (BiNaDi) hedatzeko eta ikusarazteko plataforma digitalak kudeatzeko sistema bat aztertzea eta eskuratzea.
- Ondare funtsak digitalizatzea.
- Ondare bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa ikusarazteko jarduera eta erakusketak antolatzea.
- Artxibo filmografikoa inbentariatzea, identifikatzea eta antolatzea.
- Artxibo filmografikoan gordeta dauden materialak digitalizatzea.
- Lege gordailua egiteko duten aleak erreklamatzeko modua normalizatzea.
- Lege gordailuari buruzko hedapen kanpaina bat egitea.

Informaziorako baliabideen gaineko ekintza zehatzak

- Bildumak garatzeko politika prestatzea, Nafarroako Liburutegirako eta liburutegi publikoetarako, herritarren ezaugarriak kontuan izanik, ahal den neurrian askotariko euskarri eta formatuak sartuz, eta Nafarroaren errealitate linguistikoa kontuan hartuz.
- Espurgatzeko politika eta jarraibideak prestatzea.

- Bikoiztutako aleen funts bat osatzea, liburutegiei eskaintzeko.
- Mailegu politika zabaltzea, dokumentu gehiago sartzeko eta maileguen denbora luzatzeko.
- Nafarroako liburutegi guztien artean egitea liburutegien arteko mailegua.
- Atzera begirako katalogazioa amaitzea liburutegi guztietan (2016-2019).
- Eskuratzeko prozesu zentralizatua berrikustea eta kudeaketarako formula berriak planteatzea (2016).
- Liburutegi publikoetan funts dokumentalak erraz aukeratzeko tresnak diseinatzea eta prestatzea.

Nafarroako Liburutegian eginen diren ekintza zehatzak (*herritarrendako zerbitzuak*)

- Guneen erabilera berriz zehaztea, herritarrei zuzendutako jarduera gehiago egin daitezen: lehenengo solairua egokitzea.
- Nafarroako Filmotekarekin egiten den elkarlana indartzea eta haren proiektuak eta jarduerak koordinatzea.
- Nafarroako Liburutegia sustatzeko eta jendarteratzeko plana zehaztea.
- Kultura programazioko proiektu bat egitea.
- Webgune propio bat diseinatzea eta presentzia handiagoa ematea sare sozialetan.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien gaineko ekintza zehatzak

- Intranet bat garatzea liburutegien arteko elkarlanerako eta komunikaziorako tresna izan dadin.
- AbsysNET 2.1erako migrazioa egitea eta multimedia modulua sartzea (2016).
- AbsysNETeko OPACen funtzionalitateak berrikustea eta etekinik handiena ateratzea.
- Liburuzainendako, *AbsysNET erabiltzeko eskuliburua* prestatzea, programaren funtzionalitateak zein katalogoaren aukerak barnean sartuz.

- *DataBib* eta informazioa eta datu estatistikoak biltzeko beste tresna batzuk ebaluatzea.
- Liburutegi guztietan MyPC softwarea ezartzea progresiboki (2016-2017).
- Liburutegien Zerbitzuko webgunea berritzea eta berrantolatzea, hedabide instituzional modura.
- Elkarlanean aritzea eta liburutegien web orrirako edukiak prestatzea *Cultura Navarra* webgunean.
- Liburutegiek Interneten duten presentzia koordinatzea eta indartzea. Webguneen, blogen eta sare sozialen proiektio bateratua lortzea.
- WIFI konexioa liburutegi guztietara hedatzea.
- Liburutegietan ekipamendu informatiko eta periferiko gehiago instalatzea.
- Liburutegi publikoen gailu mugikorretarako aplikazioa eguneratuta mantentzea.
- Webgune bat sortzea eta mantentzea (elvalordelasbibliotecas.com) "Liburutegien eragin sozioekonomikoari buruzko ikerlana" proiektuko datuak, txostenak eta lanak argitaratzeko.
- Datu estatistikoak eta adierazleak prestatzea.

Prestakuntzako, sustapeneko eta hedapeneko ekintza zehatzak

- *Liburutegien eragin sozioekonomikoari buruzko ikerlana hedatzeko plana* gauzatzea (2016).
- Liburuzainen prestakuntza plana (2016-2019).
- Herritarrei zuzendutako prestakuntza plana (2016-2019).
- Liburutegien jarduerak ezagutzeko, koordinatzeko eta hedatzeko plan bat prestatzea.
- Sustapeneko eta hedapeneko baliabideen katalogoa prestatzea.
- Liburutegien jardueretako baliabideen bankua sortzea.
- Ekintza plan bat diseinatzea eta garatzea liburutegien jarduna udalerrien kultura politikan txertatzeko.

- Liburutegien kultur eskaintza Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren hedapenerako tresnetan txertatzea.
- Liburutegiak kulturaguneen sarean txertatzea.
- Liburutegiak eta beren jarduerak ezagutarazteko tresnak sortzea.
- Liburutegiak sustatzeko kanpaina jakin batzuk egitea: *Liburuaren eguna*, *Liburutegiaren eguna*, *Igerilekuetako liburutegiak*, Irakurketa klubentzako topaketak.
- Topaketen bidez, esperientziak trukitzea.
- Jardueren berri emateko argitalpenak diseinatzea: *Liburutegien aldizkaria*.
- Irakurketa klubentzako jarduerak zuzendu eta kudeatzea.
- Liburutegien zerbitzuak eta jarduerak ikustera emateko publizitate kanpainak egitea.

2.5. Kultur Ekintza Zerbitzuaren ekintza plana.

1. Ikuspegia

Zerbitzuaren ikuspegiak ondoko hauek izanen ditu ardatz datozen lau urteetarako: lehiaketetarako deialdiak, programa propioak eta burutu beharreko ekintzen zeharkakotasuna.

Lan ildo zehatzak ezarri nahi ditugu kultura tradizional eta herrikoia aberasteko eta bere garrantzia nabarmentzeko. Aldi berean, berrikuntza, sormenaren industria eta artearen eta kudeaketaren molde berriak bultzatu nahi ditugu, ekonomia, gizartea, kultura eta artea indartzeko.

Nafarroako kultura sektoreen posizionamendua eta elkarren arteko harremanak indartuko ditugu, eta Foru Komunitate barruko eta kanpoko sareetan parte hartzea bultzatuko dugu, Nafarroako ondarea, antzerkia, dantza eta musika hedatzeko.

Euskara: Norabide bikoitzean eginen dugu lan: batetik, zeharkakotasunez, euskara programa eta proiektuetan sartuz eta, bestetik, esparru guztietan berez euskaraz sortutakoak sustatuz.

Zerbitzu hau proaktiboa izatea da asmoa, eta sektore kulturekin etengabeko harremana izatea.

Zerbitzuko bi atalek antzeko eginkizunak dituzte, baita partekatutako lan arloak ere, baina batak bereziki sormenaren sektorean (sortzaileekiko harremanetan) eta arte eszenikoetan dihardu eta besteak, aldiz, kultura herrikoiaren eta berrikuntzaren eremuan. Bigarren atalean, hain zuzen ere, Kultura Herrikoiaren Bulego berria sortuko da, kultura herrikoiak hedatzeko eta bultzatzeko eta bere garrantzia nabarmentzeko berariazko ekintzak, deialdiak eta programak antolatzeko helburuarekin. Kronograma: 2016an zehar.

2. Helburuak

Kultur Ekintza Zerbitzuaren helburuak puntu hauetan oinarritzen dira:

- Batetik, laguntzen deialdien berrikuspen eta analisi sakona. Prozesu horren ondorioz oinarriak sinplifikatu dira eta, horrela, laguntzetarako lehia askea erraztuko zaie herritarrei eta artearen sektoreen arteko oreka gordeko da. Deialdi batzuk hainbat urtetarako izateko aukera aztertu da. Horrek, programen kudeaketa erraztu eta sormen lana dinamizatuko du.
- Zerbitzuak berak zuzenean antolatzen dituen jaialdi eta zikloak dira programa propioak. Diru-laguntzak bezalaxe, guztiak berrikusi eta ebaluatu dira.

3. Ekintzak

Kultur Ekintza Zerbitzuak eginen dituen ekintza berri zehatzak (batzuk dagoeneko abiaraziak) dira:

- Toki entitateekin lan egitea herrietan antolatzen diren programazioen eta kultur ekintzako ildoan inguruan.
- Elkarlanean aritzea sare, federazio eta erakunde profesionalekin (Nafarroako Antzokien Sarea, Kultura Kudeatzaileen Elkarteak, arte elkarteak).

- Kanpoko baliabideak bilatzera bultzatzea: Espainia eta Europa mailako finantzaketa, nazioarteko institutuekin lankidetzak, Nafarroako Kutxa Fundazioarekin eta beste finantza erakunde batzuekin lankidetzak.
- Ikusleak fidelizatzeko eta ikusle berriak erakartzeko programa, Antzokien Sarearekin, kultura etxeekin eta Departamentuko beste zerbitzuekin elkarlanean.
- Informazio eta laguntza lerroak sustatzea Nafarroako artistek azoka eta jaialdietan parte har dezaten.
- Nafarroako Gobernuak antolatzen dituen programa artistiko zaharrenak berriz diseinatzea (Lizarrako Antzinako Musikaren Astea, Antzerki Klasikoaren Jaialdia eta Organorako Musika Zikloa), horien izenak eta edukiak gaurkotzeko eta akordio programatikoa kultura gaietarako adostutakora egokitzeko, bereziki, berrikuntzari eta hizkuntza eszeniko berrietara irekitzeari dagokionez.
- Programa berriak abiaraztea: dantza eta herri txikiak.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren parte-hartze planaren prozesuaren baitan, ekarpen ugari izan dira, 600 baino gehiago. Horietako bakoitzari erantzuteko, banaketa bat ezarri da: implementatu beharreko ekintzak, kontuan hartzen direnak, onartuak eta ukatuak, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ekintzen euskarri direnak, eta kontuan hartuko dira Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoan (NKPE).

ONARTUTAKO PROPOSAMENAK

Ondoren, analisi sakon baten ostean, Kultura Egitasmo Estrategikoan edota Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Ekintza Zerbitzuen Egitasmoetan aintzat hartuak izango diren onartutako aurkezpenak aurkezten dira

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: MUSEO ZERBITZUA / HISTORIA-ONDARE ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Ondarearen Ezagutza eta Hedapena	Bilera Sektoriala Ondarea	Mementora arte, ondare immaterialari dagokionez batez ere, hedapena dela eta tokiko eremua ez aintzat hartua izan, aldatu beharreko zerbait, azaldu beharreko ekimen asko baitaude.	Ikus entzunezko proiektzioak inplikaturako herrietan aurkezten diren arren, hedapenari dagokionez esfortzu handiagoa egin beharko zela onartu beharra dago.
Interbentzio irizpideak		Ondare Immaterialaren aldeko diskriminazio positiboan oinarritutako ekintzak aldarrikatzen dira. Aurrekontuak handiagoak izan beharko ziren eta Ondare hori berreskuratu eta mantentzeko egun dauden ekimen ugarien arabera kudeatu beharrekoa.	2017.ean KOI-aren (Kultura Ondare Immateriala) inbentarioari hasiera emango zaio. Jada baliabideak zuzenduak izan dira Zuzendaritza Egitasmoari eta baita Aurreinbentarioarenari ere, baita ikus entzunezko euskarria duen dokumentazioari ere.
Ondarearen inguruan lan egiten duten taldeen identifikazioa		Jada egun Ondare Immaterialaren arloaren inguruan lantzen ari diren erakunde, elkarte, etab. kontuan hartuak izan beharko ziren.	Puntu hau sakonki jasota dago Inbentarioaren Zuzendaritza Egitasmoan eta KOI-aren Aurreinbentarioan ere.
Hiritargoaren eskakizunak	Bilera Sektoriala Museoak	Egitasmoak bere baitan tresna eta mekanismo ezberdinak izan beharko zituen aldioro hiritargoaren, museo bisitarien, euren ezagutzeren, etab.arren iritzia ezagutu ahal izateko	Egitasmo ororen ebaluazio fasearentzat kontsulta prozesua egon beharra dago.
		Oro har, ekintza eta erakustaldi gehiago eskatzen dira, hau da, eskuragarritasun handiagoa, giden eskaintza, materiala, laburbilduz, eskaintza erakargarriago eta didaktikoagoa, gozatu daitekeena. Honetarako aurrekontuak moldatu behar dira.	Zerbitzuak bere hedatze egitasmoari bultzada garrantzitsua eman nahi dio, honen profesionalizazioaren bitartez eta baliabide ekonomiko handiagoak ezarriz.
		Museoak hedabide politika eguneratuagoa ezarri beharra dute, gizartearen errealitatearekin bat egiten duena, internet erabiliz, sare sozialak, aplikazioak, etab.	Museoek euren ardura duten Erkidegoekin bat lan egin beharra dute.
Museo Etnologikoa		Museo guztiek Erakundearekin lotura garrantzitsuagoa izan beharko zuten, horrela zentzu eta sakontasun handiagoa lortuz.	Museo Etnologikoaren proiektuak KOI-a tratatzeko adostutako azken definizio eta irizpideak aintzat izan beharko ditu. Honek bizirik dagoen eta garaikidea den ondarearen izaera jasotzea suposatzen du.

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
		Museo Etnologikoak zentzua emango dion ildo zehatza behar du, material asko baitu, baina ez ildo argia.	MEN-JCBren programa museologikoaren behin betirako programa berria burutu beharra dago, bere misioa definitua izango delarik. Egun erabiltzen dena 1997koa da eta berregin beharra dago, baina bere etorkizuneko kokaleku eta modeloaren araberakoa izango da.
Ondare Immateriala		Ondare Immaterialaren definizioa ezartzeko garaian, eta baita beharrezkoa den katalogazioa burutzerakoan ere, Nafarroak jada existitzen diren hainbat ikerlariren esperientziak aintzat hartu behar dira.	Puntu hau sakonki jasota dago Inbentarioaren Zuzendaritza Egitasmoan eta KOI-aren Aurreinbentarioan ere.
		Ondare Immateriala Ondare Materialarekin lotuta egon beharra dago zentzu handiagoa izan dezan. Ondare Immaterialak Materiala testuinguru zehatz batean kokatzen du eta zentzua ematen dio.	Ondare materialaren inguruko ikerketa eta proiektuetan ondare immateriala barneratzearen halabeharrendaren inguruan Historia-Ondare Zerbitzuarekin batera lan egingo da. Kultura Ondarearen inbentarioak kontsultatzeko amankomuneko plataforma digitalaren proiektuan ere aintzat hartua izango da.
	Lurraldekako Bilera Altsasu	Nafarroako Gobernuarekin komunikazio zuzena izan ahal izateko trena baten sorrera Herrialdearen eta Gobernuaren arteko informazioaren, koordinazioaren eta kultura ekarpenen oinarria izateko.	Egun dauden ildoek gain koordinazio forua sortzea aurreikusita dago.
Hedapena eta Informazioa	Lurraldekako Bilera Zangoza	Nafarroako kulturaren informazioarako ataria sortzea, herrialdeen programazioei garrantzia berezia eskainiz.	Nafarroako Kultura Web orrialdearen hobetzea etengabeko eginkizuna da, eta sare sozialetan duen presentzia errealitatea da. Toki edota herrialdeetako programazioen gaineko informazioaren konpetentzia herriena da, baina erabakitze bileren testuinguruan planteatu izan den kultura agendaren sorrera aztertua izango da.
Hedapena, formazioa eta informazioa	Lurraldekako Forua Tuter	Foru Erkidego mailan lan egiten duten Kultura Elkarte eta Kolektiboen zerrenda eguneratua beharrezkoa da, non gutxienez betetzen duten lana, kontaktatzeko helbidea eta euren kokapena kontsultatzea posiblea den.	Kultura elkarte eta kolektiboen diagnostikoa elkarlanean burutzeko eginkizuna da, ekimenaren abiapuntua tokiko erakundeek izan beharko zutena.
Parte hartzea	Lurraldekako Bilera Lizarra	Kultura parte hartze prozesuak abiarazteko aholkularitza eta laguntza teknikoa.	Etorkizunean aintzat hartua izango da, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren lan ildoen barne.

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
	Lurraldekako Bilera Iruñea	Parte hartze kultura sustatzea hiritarrek eta elkarteek ekarpenak egin ditzaten. Honetarako parte hartzearen gaineko formazioa zehatza beharrezkoa da.	Etorkizuneko Kultura Eskubide legearen testuinguruaren barne aztertua izango da.
	Lurraldekako Bilera Zangoza	Zuzendaritza Nagusiaren Planifikazioak zonalde ezberdinak aintzat izan beharko zituen, eta hauetariko bakoitzari irizpide ezberdinak ezartzea hauke dituzten kultura garapenerako eskuragarritasuna eta beharren egoera oinarritzat hartuta.	Etorkizuneko prozesuetarako eta Nafarroako Kultura Egitasmo Estrategikoaren (NKEE) lan maietarako aintzat hartua izango da.
Programazioa	Lurraldekako Bilera Iruñea	Kultura elkargunerako plataforma digitalaren sorrera, bai kultura programatzaileentzat bai elkarreentzat ere.	APP baten sorrera azterketa martxan dago.
		Tokiko taldeen gaineko erregistro eta kontrola izatea geroago kultura programazioak burutzerakoan aintzat hartua izan dadin.	Kultura elkarte eta kolektiboen diagnostikoa elkarlanean burutzeko eginkizuna da, ekimenaren abiapuntua tokiko erakundeek izan beharko zutena.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: ARAUDIA ZERBITZUAK

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Mezenasgo Legea / Ondarearen Azpisail Ekonomikoa	Bilera Sektoriala Patrimonio	Mezenasgo Legeak batez ere ETE eta mikro ETEak lagundu beharko zituen, egun eskuragarri ez dituztenak.	Legearen etorkizuneko berrikuspenean proposamena barneratua izango da.
Araudia	Bilera Sektoriala Artxiboak	Araudia betetzea berebizikoa da. Zigortze erregimena existitu behar da eta betearazi.	
		Nafarroako Artxiboekin zerikusia duen araudiak jaso behar zuen arlo oso garrantzitsu bat baliabide gutxien dituzten herriak laguntzeko tresnen eratzea da.	
		Araudiak artxibo bat zer den argi azaltzeko definizio zehatz bat beharrezkoa du, izan diren aldaketak eta egun existitzen diren formatu anitzak aintzat hartuta eta baita kanalak ere.	
		Dokumentuenganako eskuragarritasun eskubideari dagokionez, araudia bateratzea beharrezkoa da.	
	Bilera Sektoriala Museoak	Nafarroako Museo eta Bilduma Museografikoen Legeak ez zuen Nafarroako Museo bat ere alde batera utzi behar, nahiz eta txikiak izan.	Nahiz eta Legearen berrikuspenak ahalik barneratze handiena izaten saiatuko den, definizio eta baldintzak ezartzea beharrezkoa da.

		Legeak Hiriaren kontzeptua Museotzat barneratu beharko zuen eta obrak behar diren bezala tratatuak izan daitezela ahalbidetzea.	Museo ekipamendua hobeto definitzea beharrezkoa da eta honen erlazioa beste ondare errealitateenganakoa ere.
--	--	---	--

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: HISTORIA-ONDARE ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Ondare Legearen berrikuspena	Erabakitze Bilera	<p>Parte hartzaile batek komentatzen duenez, zenbait herritan elizak gizabanakoei salduak izan dira erakunde eklesiastikoak guztiak mantendu ezin dituelako. Gizabanakoei saldu baino lehenago, legez ondare hori tokiko biztanleriak erosteko lehentasuna izatea aipatzen da.</p>	<p>Ez da erraza, ezta ziurrenik konstituzionala ere, jabeen euren ondasunen gaineko besteratzeari auzerik gabe burutzea, kultura ondasunen babeserako aurreikusten diren neurriak era eraginkorrean abiarazteko galerarik gabe, jabea nor den garrantzi eskasa duelarik.</p> <p>Egungo Foru Legeak (33. Art.) Administrazio publikoek Interes Kulturalako Ondasunen eta Inbentariatuak higitzeko gaineko transmisioarekiko duten eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubidea jasotzen du, eta baita ondasun higitzeko jakin batzuk eliza instituzio edota gizabanakoei transmititzeko dagoen ezintasuna ere.</p> <p>Aurreikuspen hauek beste arloetara zabaltzea legearen etorkizuneko berrikuspenean aztertua izango da.</p>
Ondare Legearen berrikuspena	Erabakitze Bilera	<p>Honi lotuta, proposamen honi beste ekarpen bat gehitzen zaio mantendu beharreko ondarea materiala soilik izan behar ez dela, baizik eta immateriala ere. Ondare hauetariko asko bakarrik tokiko herrietara transmitituak izan daitezke, hauek baitira batez ere ondare hau mantentzen dituztenak.</p>	<p>Legearen etorkizuneko berrikuspenean aztertua izango da.</p>

JADA EZARRITAKO PROPOSAMENAK

Ondoren jada ezartzen ari diren eta azaltzen diren eduki eta gaiekiko zerikusia duten proposamenak aurkezten dira.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: ONDARE ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Formaizoa	Bilera Sektoriala Ondarea	Ikasketa planetan Ondarea berebiziko balioztat barneratzea garrantzitsua da.	Hezkuntza Sailarekin bat elkarlanerako proiektu bat existitzen da jada, "Nafarroa. Sormen lurraldea, hezkuntza lurraldea".
		Ondarearen gaineko formazioa bultzatu beharra dago Hezkuntza Formalaren eta Ez Formalaren bitartez, erakargarria izan dadin, kuriositatez, etab.	Hezkuntza Formalaren arloa ez da Kulturaren konpetentzia, baina hezkuntza ez formalean jada hedapen programazioa burutzen da herritarrengana orokorrean heltzeko asmoarekin.
Zeharkakotasuna		Ondareak zeharkako izaera izan behar du, Hezkuntza, Lurraldearen Ordenazioa, Ingurugiroa , etab. aintzat hartuta.	Beste Sailekin zeharkako eran lana burutzen ari da.
Ondare Legearen berrikuspena	Erabakitze Bilera	Erosleek lur eremu zehatz bat erosi baino lehenago honek izan ditzakeen ondare kargen inguruko informazio sistema existitzea beharrezkoa izango litzateke. Horretarako Kautelazko Neurriak Legearen 59. Artikuluan zelula partzelarioek lurzatiaren karga eta zortasunak barneratzea agertu zitekeen.	Informazioa hau jada hirigintza egitasmoen katalogoen barne dago bilduta, non Interes Kulturaleko Ondasun, Inbentariatuak tokiko garrantzia eta katalogatuak dauden eraikin guztien babes araudia zehazten den (Nafarroako Gobernuko web orrialdean / Nafarroako Hirigintza Informazio Sisteman kontsultatu daitekeena). Honi ondare arkitektonikoaren eta etnologikoaren inbentarioan, ondasun higikorren katalogoan eta Kultura Ondasunen Erregistroan biltzen den informazioa gehitu beharra zaio. Gainera, IKO izendatutako eraikinentzat jabetza Erregistroa aipatu beharra dago (19. Art.). Beraz Legea eraldatzea ez da beharrezkoa, inongo galerarik gabe, ekintza egitasmoak proposatzen duenez, bertan biltzen diren tresnen hobekuntza, hedapen eta dibulgazioaren alde ez bada.
Ondare Legearen berrikuspena	Erabakitze Bilera	Herri plangintzan eta lurraldearen ordenazioan bilduta egon beharko ziren informazio guzti hauek, nahiz eta hauetariko askok ez dauden eguneratuak eta ez dute informazio hori. Informazio hori ondare osoari erreferentzia egin behar ziola azpimarratzen da, ez soilik kultura eta materialari, baizik eta ondare mota guztiei, bai material bai immaterialari.	
Ondare Legearen berrikuspena	Erabakitze Bilera	Katalogatu eta erregistratzeko mementoan askotan elitismo teknikoan izan da nagusi, baina gerora begira oso zaila da hau mantentzea ez baitaude baliabide nahiko. Honi dagokionez, herritarrek ondarea ezagutzeko eta baloratzeko egin beharreko esfortzua handiago izan beharko zen, propioztat uler zezan eta mantentze agente papera bete zezan.	Legeak ez du elitismo teknikorik kultura ondareak babesterakoan. Bai, esfortzua handiago izan beharko zen, baina ez hainbeste legerari dagokionez, baizik eta ekintza egitasmoei dagokienez. Ondarea ezagutarazteko ekintzak burutzen dira, hala nola Europako ondare jardunaldiak.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: EKINTZA KULTURA ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Sailaren diru laguntza deialdiak	Bilera Sektoriala Zinematografia eta Arte Eszenikoak	Diru laguntzek erabat beharrezkoak diren zenbait gastu ez ordaintzea ulergaitza suertatzen da, hala nola, Zuzendaritza.	Deialdiak Diru laguntzen Legearen eta Interbentzio irizpideen arabera antolatzen dira.
		Arlo profesionala eta boluntarioa edo profesionala ez diren sektoreak berdin tratatzea arazo larria da, izan ere, maila guztietan erabat ezberdinak baitira.	Bi sektoreek deialdi ezberdinetara jotzen dute.
		Helburuen hausnarketa argia beharrezkoa da, diru laguntzen bitartez eskuratu nahi dena sektorea eta Nafarroan sortzen diren proiektuak aintzat hartuta argitu beharrez.	Deialdien helburuak oso argi daude oinarrietan azalduta.
		Diru laguntzen deialdiak zinemaren munduak jasaten dituen etengabeko aldaketei moldatu beharko ziren.	Urtero berrikusten dira hobekuntzak barneratzeko.
Punto de Vista Jaialdia	Bilera Sektoriala Zinematografia eta Arte Eszenikoak	Jaialdiak zinemaren munduko eta publikoaren parte hartze handiagoaren premia du.	Azken edizioen parte hartze datuak oso onak dira. Dena den, publikoaren bertaratzeko eta kudeaketa hobetzeko taldearen inplikazioa etengabekoa da.
Ekimen zinematografikoak		Tuterako Opera Prima Jaialdia gehiago zaindu beharko zen, izan ere, egun Nafarroan dauden ekimenen artean interesgarrienetakoa baita.	Nafarroako Gobernuak urtero sinatzen du elkarlanerako hitzarmena.
Ondare filmikoa		Fondo Filmikoa mantentzeko laguntza gehiago egon beharko zen.	Fondo Filmikoa laguntza Liburutegi Zerbitzuak bideratzen du. Artxibo honen hedapenaren inguruan lan egingo da.
Plangintza	Lurraldekako Bilera Tutera	Tutera eta herrialdean Nafarroako ikus entzunezko sektorea garatzeko Egitasmo/Proiektua, dauden giza baliabide eta materialak, esperientzia, elkarlan sareak eta azken hamarkadetan izan den garapena probestuko zituenak.	Sektore zinematografiko barruan cluster bat dago, baita ere Film Commission-a dago, Nafarroako sektorea orokorrean barneratzen duena. Nafarroako Gobernuak "Tuterako Opera Prima" zinema jaialdiarekin urtero hitzarmena sinatzen du.
Programazioa. Kultura Ekintza	Lurraldekako Bilera Lizarra	Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Iruñetik kanpo eskaintzeko ekitaldien egutegia antolatuta.	NOS-ak bere zikloak ezarriak ditu Iruñea eta Tuteran. Honez gain, maiz beste herrietan ekitaldiak antolatzen ditu.
Administrazio-Sail Harremana	Bilera Sektoriala Zinematografia eta Ikus entzunezko Arteak	Administrazio eta profesionalen arteko harremana arina, parte hartzailea, beharrezkoak diren aspektuak hobetu ahal izateko.	Profesionalekin mantentzen diren harremanak maiz eta arinak dira.
Diru laguntzen deialdien balorazioa	Bilera Sektoriala Arte Eszenikoak	Talde amateur eta profesionalen arteko sortzen den lehiaren inguruko eztabaida sakona existitzen da, bai diru laguntzen eskuragarritasuna dela era, bai eszenatokiaren eskuragarritasuna dela eta.	Ezberdinak dira sektore amateur eta profesionalentzako zuzenduta dauden deialdiak. Bakoitza tokatzen zaionarengana jotzen du.

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
	Bilera Sektoriala Musika	Diru laguntzenganako eskuragarritasuna dela eta amateur erakunde eta profesionalen arteko mugak zehazteko beharra dago. Honekin lotuta, Nafarroako sektore profesionala lagundu behar dela uste da Nafarroako ekonomiaren baitan sektore garrantzitsua izan dadin.	Bi sektoreentzako irizpide ezberdinak ezartzen dituzte deialdiek. Sektore profesionalarekiko laguntzak nabarmenki handitu izan dira.
Arte Eszenikoen berezko programen balorazioa	Bilera Sektoriala Arte Eszenikoak	Orokorrean jaialdi ezberdinetan parte hartzen duten taldeen aukeraketa askoz ere irekiago eta pluralagoa izan behar zela uste da, taldeak euren proposamenen bitartez parte har zezaketelarik.	Programa nagusientzat zuzendaritza artistikoa aukeratzeko prozesua abian jarri da, Europako jaialdi eta kultura programa gehienetan egiten den bezala.
		Programak herri gehiagotara heldu behar zirela uste da eta hauek herrien errealitate sozial eta errealitatera moldatu behar zirela.	Programen eskaintza zabala ahalik eta herri gehienetara iristen saiatzen da.
Etorkizunera begira	Arte Eszenikoak	Parte hartze prozesuez haratago (kudeaketan etenik gabe presente egon behar zirela eskatzen delarik), sektorearen hobekuntza Nafarroako Gobernuak ekintzaren ondorioa izan beharko zen. Honekin lotuta, kudeaketa hau hitzartua egon behar zela uste da era honetan gobernu aldaketek sor zitzaketen joan eta etorriak alde batera utziz.	Programa artistikoen, bultzatze planen (dantza eta antzerkia), erakunde artistiko ezberdinekin sinatutako hitzarmenen eta deialdi ezberdinen ezarpenaren bitartez sektore hauek hobekuntzak nabaritzen hastea espero da.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: ZUZENDARITZA NAGUSIA

TEMÁTICA	ORIGEN	PROPUESTA	MOTIVACIÓN
Kulturaren hedapena, eskuragarritasuna eta ikusgarritasuna	Lurraldekako Bilera Lizarra	Eskuragarritasun egitasmoa eta kultura eraikinetako oztopo arkitektonikoen konponketa.	Gobernuaren konprometua da oztopoak desagerraraztea. Honen inguruan neurriak burutu izan dira eta egun dauden oztopoak zuzentzen jarraituko da.
Parte hartzea	Lurraldekako Bilera Iruñea	Teknologia berrien erabilera hobetu eta bultzatzea kulturaren hedapena eta parte hartzea sustatzeko.	culturavarra.es web orrialdea sortua izan da eta sare sozialek ekintza maila altua daukate, gainera, APP baten sorrera aztertua izango da.
Parte hartzea plangintza	Lurraldekako Bilera Zangoza	Landa eremuetako Kultura Plangintza Hiritargoaren Parte Hartze Prozesuez osatuta egon beharko zen, zentzu handiago izan zezan, motibazioa, etab.	Nafarroako Gobernuak parte hartze prozesu ugari abiarazi ditu, ekarpen hauek programazioa burutzerakoan aintzat hartzen direlarik.
Gardentasuna	Bilera Sektoriala Ondarea	Eraberritze ezberdinetan gastatzen den diruaren kantitate zehatza ezagutza informazio konkretuaren bitartez beharrezkoa da. Inmatrikulatutako ondareen eraberritzetan 18 bat milioi inguru gastatu izan dira, hala nola Iruñeko Katedrala edota Tuterakoa eta hauek sarrera kobratzen dute oraindik ere.	Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak publikoak dira eta kontsultatuak izan daitezke.

EZARRIKO EZ DIREN PROPOSAMENAK

Ondoren onartzen ez diren proposamenak eta honetarako arrazoipena aurkezten dira.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: LIBURUTEGI ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Egungo eta berriak diren zerbitzuen egokipena	Bilera Sektoriala Liburutegiak	Jabeek mantendu ezin ditzaketen liburutegi pribatuen kargua Liburutegi Sareak hartu beharko zuen.	Fondo pribatuek liburutegi publikoei dohaintzak egiteko aukera dute.
Hiritargoaren eskariak		Egun Liburutegi kontzeptuarekin nolabaiteko nahasmena antzematen da, ekintza ezberdinen bitartez, ludikoak, ikasketak, sasi haurtzaindegiak, etab. gizarterenganako hurbiltasuna lortu nahian eratua. Hau dela eta, benetako erabilerak (irakurketa, promozioa, aholkularitza, ...) zeharo ahaztuak izan dira, konpondu beharreko zerbait delarik.	Liburutegia bizirik dagoen eta dinamikoa den erakundea da, garatu egin dena eta aldakorra den ingurugiro sozial eta kulturalera moldatzen ari dena. Liburutegia ez da soilik kontsulta eta informazioa lortzeko eremua, baizik eta ikasteko, kulturaren gozamen ludikoaz profitatzeko eta errespetuz eta harmonian bizi behar diren pertsona eta pentsamenduen elkartruckerako eremuak

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: MUSEO ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Baliabide eta Azpiegiturak	Lurraldekako Bilera Zangoza	Zonaldea dinamizatuko zuen sustatzaile papera izango zuen Museoa herrialdean existitzea beharrezkoa izango zen oso.	Kulturari dagokionez ekipamenduen lurraldeko politika zehaztu beharra dago. Ekipamenduaren sakabanatzea beharrezkoa da baina horrek bideragarritasunari dagokionez zailtasunak areagotzen ditu. Egitasmoak proposamen alternatiboak jaso beharko zituen (erakusketa mugikorrek eta bestelakoak).
		Museo Etnografikoa Zangoza bezalako Nafarroako zonalde batean kokatzea proposatzen da, horrela baliabideak era orekatuagoan banatuak izango baitziren. Gainera, garrantziko espazioak moldatu zitezkeen Museo Etnografikoa Zangozan kokatu zedin.	Museo Etnografikoa Zangozan kokatu ahal izateko tokiko proposamen nahikoa beharrezkoa litzateke. Landu beharrezko ildo posible bat da.
Museo Legea	Erabakitze Bilera	23. artikuluan Museoa nola zabaldu behar diren, ze tresnaren bitartez, etab. zehaztu beharko zen.	Gure ustez legea ez da hedapen tresna zehatzak argitzeko mediorik egokiena.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: HISTORIA-ONDARE ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Formazioa	Bilera Sektoriala Ondarea	Hezkuntza Zentroetan Ondarearen presentzia falta sumatzen da, bai materiala baita immateriala ere, balorea eta garrantzia eman behar ziolarik.	Hezkuntza zentroak Hezkuntza Sailaren kompetentzia dira.
Ondare Baliabideen Zerrenda	Erabakitze Bilera Eskuragarritasuna eta Ikusgarritasuna	Prozesuak kultura baliabideei ere lotuta egon behar zirela uste da, horrela beste kultura prozesu edota ekintzak laguntzea ahalbidetuko zituen teknikak, material eta profesionalak ezagutaraziz.	Ondare Baliabide Zerrendari ezin zaio aplikatu..
		Zerrenda honen eginkizun nagusienetarikoa bat hezkuntza sistemak erabiltzeko tresna garrantzitsua izatea izan beharko zen, eskolatik hasita Nafarroako Ondarearen inguruan ikasteko erabili zitekeena.	Inbentarioak ikasketen oinarri izateko tresnak direla ulertzen dugu. Eta hauek izango dira hezkuntza aktibotzat erabiltzeko oinarri izango dira. Ondare higikorren inbentarioa 5.000 fitxa baino gehiagoz osatua dagoela aintzat hartu beharra dago, kategoria anitzez gainera.
		Ondare Immaterialari dagokionez batez ere, tokiko ekimenek jada burutu izan duten lana probestea beharrezkoa litzateke. Hau baliabidea izango litzateke baina baita ekimen hauek baloratzeko eta errekonozitzeko ere.	Ondare Immateriala ez da Zerbitzuaren betebeharren ardatza. Hala ere da tokiko erakunde eta kolektiboekin harremanak izatea oso garrantzitsua. Harreman hau sustatuko dugu, Historia Ondareari dagokionez, ekimen ezberdinen bitartez, hala nola Europako Ondare Jardunaldiak.
		Azken urteotan diskriminatua izan den herri kulturaren aldeko diskriminazio positibo irizpideak izan beharko zituen zerrendak. Horrela lan egin duten eta lanean dabiltzaten lan askoren eginkizuna ikusgarriagoa izateko eta baita baloratzeko ere.	Inbentarioak osatuak eta zehatzak izan behar dira.
Herri kulturaren ikusgarritasuna eta balorazioa	Erabakitze Bilera Eskuragarritasuna eta Ikusgarritasuna	Herri kultura mantentzen eta bizi duena tekniko eta ekonomikoki laguntzea berebizikoa dela uste da.	Ondarearen gaineko ikuspegi bateratura heltzeko asmoz aurrera egin beharra dago eta ondarearen kudeaketa era bateratuan, protokoloen bitartez eta arautua antolatzeke asmoz egingo da hau; hala ere, egun herri kultura ez dago Historia Ondarearen eginkizunen ardatzean kokatua. Honi dagokionez, Ekintza Kultura Zerbitzua da herri kulturaren inguruan elkarriketetan ari dena.
		Horretarako herri kultura sustatzeko ardura duten agente ezberdinak profesionalizatzea proposatzen da, egun hauetariko askok amateur izaera dutelarik.	
		Ondare Legeak oso ongi mantentzen du ondare materiala baina ez du era berean lan egiten immaterialarekin, hauek mantentzeko baliabide ekonomiko eskasagoak egokituz.	
		Immaterialak diren Interes Kultureko Ondasunei dagokienez, hauek izendatzeko sistema oso arbitrarioa dela uste da eta "ad hoc" burutzen den ikerketa batez osatua izaten dela, berez kulturalki balore handirik ez duena.	

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
			berebizikoa da.
		Herri kulturaren barne dauden hainbat artisautza elementu galtzen hasiak dira bereziki artisauen desagerpena dela eta hauen tekniken berriztapen falta dela eta.	Egun artisautza Turismo Zuzendaritza Nagusiaren menpeko konpetentzia da eta beraz, ez da Ondare Zerbitzuaren konpetentzia.
Ondare Legearen Berrikuspena	Erabakitze Bilera	Ondare Legea positibotzat hartzen da, ondarearen babesari dagokionez, baina praktikari begira hiritargoaren ondarea zer den eta ondare partikularra zer den argitzea beharrezkoa litzateke. Honi dagokionez komunitarioak izendatua dauden ondareen itzulpena eskatu beharko litzatekeela uste da, gizabanakoen eskuetan dauden ondare zehatzak.	Legeak ondarea bere jabegoari begira bereiztea ez da zilegi.
		Legeak Ondare Immaterialaren gaineko egile eskubideak aintzat izatea beharrezkoa dela uste da, hau era faltsuan erabilia ez izateko.	Ondare immaterialaren mantentze eta hedapenaren alde egitea oso garrantzitsua da, eta ondorioz, jabego intelektualaren araudia aintza izan behar da, baina egun Legeak ez du aspektu hau biltzen.
		Jabeek euren jabetzetan izan ditzaketen ondarearen gaineko betebeharrak direla eta, legez mantentze edota eraberritze kostu eta zamak obra handi edota jabe handientzako egokiak dira, baina gehiegizkoak dira jabe txikientzat, izan ere, ekintza hauek kostu handiak sor ditzakete, eta honek jabeak ondarea kargatzat hartzea suposatuz dezake, ondarea aurkitzerakoan hau ezkutatzea edo honen harira gezurrak botatzea ekar dezake.	Juridikoki gai konplexua da hau.
Ondare Legearen Berrikuspena	Erabakitze Bilera	Ondarearen ikerketa eremu eta mantentze lanetan jarduten duten profesionalak ez daude ekonomikoki egon behar ziren bezain babestuak eta profesional hauek burutzen dituzten hedapen ekintzak ordaindu ahal izateko sistema baten beharra dago.	Ez da legearen helburua, sektore hau sustatu eta profesionalizatzeko har daitezkeen neurrien galerarik gabe. Foru Legeak biltzen duen araudia Lurralde eta Hirigintzaren Ordenaziorako Foru Legeak biltzen duena osatzen du, aurrituak izendatu izan diren eraikinak eraistea (zenbaitetan jabeek berek nahi dutena) eta bertan eraikin berria eraikitzea ahalbidetzen ez duena, eraikina babestua baldin badago. Hirigintza araudia guztietara zabaldua dagoen gaia. Hala ere, eraberritzeko beharra moldatzeko mekanismoak badira.
Ondare Legearen Berrikuspena	Erabakitze Bilera	Eraispen neurriak eta aurri txostena direla eta (Legearen 30. eta 31. Artikuluak) konponbide aukera zabalagoak izatearen aukera proposatzen da gastua elementuaren balore eta egoerari moldatzeko, eraikinen estaltzeaz haratago joanda, betiere konponbide egokiena izan ez daitekeelarik.	Foru Legeak ez du ondareek balore kulturala duten edo ez izendatzen (ex lege izendatutakoak salbu), baizik eta kultura ondarea babesteko medio eta bideak izendatzen dituela.
Ondare Legearen Berrikuspena	Erabakitze Bilera	Ondare eta baita balore etnografikoa dituzten elementu asko galtzen ari gara.	

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: ARTXIBO ETA ONDARE DOKUMENTALAREN ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Kompetentzia profesionalen formazioa	Bilera Sektoriala Artxiboak	Formazioa osatua, azkar eta eraginkorra eskaintzeko bide egokia Unibertsitatean ikastaroak diseinatu eta antolatzea izango zen, izan ere burokraziari dagokionez hauek masterrak baino bideragarriagoak dira. Gainera, praktikotasun handia izan zezaketen.	Nahiz eta proposamen paregabea izan, Nafarroan ez dago artxiboen profesionalen kompetentzien inguruan eskaintzen duen formazioa unibertsitariorik. Zehazki, egunera arteko esperientzia alderantzizkoa da: artxiboetako profesionalak unibertsitateko formazioa ekintzetan parte hartzen (adibidez, lehen eskaintzen zen NUP-ren berezko kultura ondare titulua).
Baliabide eta Azpiegiturak	Lurraldekako Bilera Tafalla	Nafarroako Artxibo Nagusiaren azpiegoitza eratzea Tafallako Oblatas Komentua, herrialdera begira antolatua.	Nafarroako Artxibo Orokorrek eskaintzen dituen zerbitzuen antolakuntzak zentralizazioa eskatzen du ahalik eta eraginkorrena izatearren. Hala ere, Tafallako Artxibo Orokorrek egoitza egokia izan zezakeen Recoletas eraikinean, hiritargoaren zerbitzura.
Baliabide eta Azpiegiturak Ondare immateriala	Lurraldekako Bilera Lizarra	Nafarroako Museo Etnografikoa behin betirako Lizarran kokatzea, honetarako Santo Domingo eta Santa Clara eraikinak aukerazko kokapenak aipatuz.	Ekintza hau ez du Artxibo eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzuak baloratu behar, baizik eta Museoen Zerbitzuak.
Artxiboen Legearen berrikuspena	Erabakitze Bilera	2. Titulua 5. Artikulua 6. Puntua: Hiritargoak dituen artxibo pribatuen balorea dela eta. Biztanleriaren artean hedatu eta komunikatu beharra dago artxibo hauek behar bezalako tratamendua jasoko duten arlo publikoaren eskuetan jarri beharra dagoela.	Ez da berrikuspen proposamena, baizik era artxibo pribatuen jabeen mezua helarazteko proposamena, hauek euren artxiboak arlo publikoan uzteko animatzeko.
		2. Artikulua 8. Kapituluak: Mantentze egutegiari dagokionez, hau abiaraztea beharrezkoa da ikusgarritasun eta balore handiagoa izan dezan.	Dokumentuen ebaluazio egokia burutzeko ekimenaren proposamena da.
		4. Titulua 1. Kapituluak. Artxiboen Egitura: Hau sakontzeko beharra. Legearen barne daude baina gehiengoak EZ dute funtzionatzen.	Foru Erkidegoko Administrazioaren Artxibo Sistemarentzat Legeak biltzen duena era zuzenean betearazteko ekintza proposamena da, zehazki Sailek ezarritako artxibo zentralen eskasari dagokionez. Proposamen honek, nahiz eta Legearen hobekuntzan ardatza ez izan, arazoaren konponbidea lortzeko ekintza ildoetako batekin bateragarria da.
		15. Titulua: Zigortze sistema eraginkorragoa egitea ekintza handiago baten bitartez.	Legeak aurreikusten duen zigortze araudia betearaztearren proposatzen ekintza da.
		Nafarroako Gobernuak dituen eginkizunak azpimarratu behar dira, izan ere, administrazio askok ez dute euren artxiboak kudeatzeko gaitasunik, ez fisikoki ez elektronikoki.	Garrantzizkoa den ekintza proposamena da hau, batez ere zailtasunak dituzten Nafarroako administrazioak laguntzeko ekimenak abiarazteko dokumentu eta artxiboei dagokienez, hauek erakunde txikiak izanda, eta batez ere dokumentu digitalen sorrerak dituen ondorioak direla eta.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: KULTURA EKINTZA ZERBITZUA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Eskuragarritasun eta ikusgarritasuna	Lurraldekako bilera Altsasu	Haraneko talde amateurrek ezagutaraztea, beste herrietan ekitaldiak burutzeko laguntza eskainiz.	Talde amateurrek, etekinik gabeko kultura erakundeak diren heinean, helburu honetara bideratuta dauden deialdietara aurkeztu ditzakete euren proiektuak. Interesgarria da tokiko erakundeek amateur taldeen informazioa biltzea eta hauek ezagutaraztea.
Diru laguntzen deialdiak	Bilera Sektoriala Zinematografia eta Ikus entzunezko Arteak	Gehiegizko burokrazia zailtasun bat da, artista askok tramite eta dokumentuei jaramon handiagoa egin behar baitiete euren proiektuei baino. Sektorearen eta Administrazioaren arteko elkar ulertze falta honek denbora ekonomiko, etab.en eta proiektu baten sormenaren denborek bat ez egitea sorrarazten du.	Administrazioak, gardentasuna dela eta, justifikatu beharreko gastu publikoaren gaineko prozesu jakin batzuk bete behar ditu.
		Zentzu handiagoa dauka metraje motzeko edo ertaineko proiektuak bultzatzea, luzeak direnak baino, azken hauen eragin eskasa dela eta.	Zinema deialdiek metraje luzeko eta motzeko filmak barne jasotzen dituzte zinematografia eta ikus entzunezko arloetatik horrela bultzatzen delako, bakoitzak bere jarraibide propioa duelarik.
Punto de Vista Jaialdia	Bilera Sektoriala Zinematografia eta Ikus entzunezko Arteak	Baluartea ez da jaialdia ospatzeko kokalekurik egokiena. Azken aldian itxi izan diren zinema areto ezberdinak moldatzea konponbide egokia izango litzateke.	Baluartea jaialdirako espazioa egokia suertatu da.
Ekimen zinematografikoak		Filmoteka Iruñeko erdigunera tokialdatzea oso egokia litzateke.	Filmotekak jada espazio egokia du Iruñean, Nafarroako Liburutegi eta Filmotekaren testuinguruan.
		Administrazioak hirian erakusketarako aretoak izatea bermatu beharko zuen, zeudenak itxiak izan baitira, sektorearentzat gabezia handia izan delarik.	Zinema aretoak ekimen pribatuak dira. Nafarroako Gobernuak bere proiektio, ziklo, etab.entzako Filmoteka dauka.
Ondarea	Lurraldekako bilera Altsasu	Haraneko Ondare Immateriala grabazio, filmazio, inbentario, etab.en bitartez berreskuratzen eta mantentzen duten ikasleei zuzendutako "beken" sorrera.	"Haranarentzako" beka baldin badira, herri edota herrialdearen ekimena izan beharko ziren.
Programazioa	Lurraldekako bilera Zangoza	Kultur programa urteko beste garaietara zabaltzea.	Kultur programaren abiapuntua ekintzak udan zehar antolatzea da, batez ere espazio irekietan.
	Lurraldekako bilera Iruñea	Nafarroan gaitegi ezberdinak izango zituen literatura lehiaketa sortzea –ipuinak, eleberririk, poesia, etab.-, nazioarteko proiektioa izango zuena.	Aurrekontuek ahalbidetzen dutenean ekimen hau aztertua izango da.
		Naturan burututako arte lehiaketa baten sorrera.	Ekimen hau tokiko eremuko dela uste da.

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Programazioa eta ekintzak	Lurraldekako bilera Altsasu	Talde amateurrentzat zuzendutako zirkuitu baten sorrera.	Amateur izaerako antzerkia Nafarroako giza eta kultura sormen arloan berebiziko elementua da. Antzerki Amateurraren Federazio barneko proiektuek Kultura Ekintzaren barneko deialdien baren daude, beraz, ez da beharrezkotzat hartzen zirkuitu baten sorrera.
Programazioa. Kultura Ekintza	Lurraldekako bilera Lizarra	Talde amateur eta profesionalentzat programazio zirkuitu bereziak sortzea.	Antzerkia Sustatzeko Egitasmoaren barne ekintza ezberdinak burutzea aurreikusita dago, hala nola profesionalentzako zirkuitu baten sorrera edota sektorearen ordenazioa.
Baliabide eta Azpiegiturak	Lurraldekako bilera Tutera	Herrialde mailako Sormen eta produkzio Artistikorako Espazio baten sorrera/prestatzea.	Uhartan herrialde izaera duen produkzio artistikorako zentroa existitzen da (UAGZ), arte plastikoez gain, arte eszeniko eta musikalen proiektua biltzen dituenak, zeharkako proposamenak ezartzeko helburuarekin. Egungo testuinguru ekonomikoan produkzio eszenikora bideratutako zentro baten eraikuntza ez da bideragarria.
	Lurraldekako bilera Iruñea	Kultura sortzeko espazio eta kultura zirkuitu edo ildoak sortu.	Programazio artistikoen deialdien bitartez espazio eszenikoak sormen zentro bezala erabiltzea errazten da. Uhartan herrialde izaera duen produkzio artistikorako zentroa existitzen da (UAGZ), arte plastikoez gain, arte eszeniko eta musikalen proiektua biltzen dituenak, zeharkako proposamenak ezartzeko helburuarekin
		Antzerki amateurra interes kultural eta sozialeko ondaretzat hartzea, Antzerki sarean barneratzen den heinean.	Antzerki Amateurraren berebiziko elementua da Nafarroako giza eta kultura sarea sortzerako mementoan. Antzerki Amateurraren Federazioaren proiektuak Kultura Ekintzaren deialdien barne kabitzen dira.
		Espazio eta medio kulturalen erabileren hobekuntza kultura sormen eta produkzioan lantzen duten taldeei euren erabilera eta eskuragarritasuna erraztuz.	Kultura espazio eta medioak ez daude Nafarroako Gobernuaren jabeagoan. Orokorrean tokiko erakundeak dira hauen jabeak, eta ondorioz, hauek dira euren erabilpen baliabideak ezartzen dituztenak. Dena dela, Nafarroako Gobernuak deialdien bitartez, sormenetako zentroak erabiltzea sustatzen du.
		Lurraldekako bilera Altsasu	Sormen eta produkzioa zuzendutako laguntzak herrialdeko zinema eta arte plastikoetara zabaltzea.
	Lurraldekako bilera Zangoza	Zangozako zinema berreskuratzea eta filmak programatzea.	Herri eremuko gaia da hau.
Diru laguntzen deialdien balorazioa	Bilera Sektoriala Arte Eszenikoak	Ekintzen programazioaren artikulazioa diru laguntzen deialdien bitartez berebizikoa da eta ez da era egokian burutzen ari.	Ez dago proposamen zehatzik, ekarpen hau, izatekotan, iritzi edota kritika da. Enpresa, profesional edota erakundeek euren ekintzen programazioak aurkezten dituzte, baremoaren arabera

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
			baloratzen direnak.
		Diru laguntza zuzenei finantza sistema alternatiboak bilatzea beharrezkoa dela uste da, hala nola, ogasun laguntzak, koprodukzio laguntzak, aretoenganako eskuragarritasuna erraztu, etab.	Ogasun laguntzak jada existitzen dira MECNA bitartez (Mezenasgoa Kultura Nafarroa), eta zuzenak ekintza zinematografikoei dagokienez.
	Bilera sektoriala Musika	Etekinik gabeko zenbait erakunderen aburuz, urte eta erdirako programazioa ezartzea oso konplexua da eta ekintzak diru laguntzarik gabe burutzea oso zaila da, honek diru laguntzak ematen direnean ekintza asko gainjartzea sortzen duelarik.	Bi deialdi mota daude, bata urterokoa dena eta 50.000 eurotik beherakoa dena; eta bestea urte gehiagorako dena eta 50.000 eurotik gorakoa dena. Erakundeek diru laguntzekiko duten menpekotasunak eragiten du ekintzak diru laguntzak jaso arte ez hastea.
		Erakunde berriak edota txikiagoen sarrera ahalbidetzen duen diru laguntzak banatzeko sistema jakin baten beharra aipatzen da, horrela diru laguntzak erakunde zehatzetan biltzea saihestuz.	Deialdietan parte hartzeko antzinatasuna urte batekoa da. Hortik aurrera ez dago ezberdintasunik arlo honi dagokionez.
Arte eszenikoen berezko programen balorazioa	Bilera sektoriala Arte Eszenikoak	Dantza jaialdiari dagokionez, beste dantza motetara irekitzea uste da.	Jaialdia garaikideko dantzaren ingurukoa da.
		Jaialdi mota batzuk, hala nola Kultur, espazio eszenikoen muga izateak, ikuskizun eta konpainia zehatzek bakarrik hauetara moldatzea suertatzen du.	Espazioak berebizikoak dira Kultur programan, bai kanpoan bai barruan burutzen direnak, izan ere, turismoari zuzendua dago beste batzuen artean,
Musikaren berezko programen balorazioa	Bilera sektoriala Musika	Kultura herrialdeko ahalik eta herri gehienetara heltzea garrantzitsua dela uste da. Organorako Musika Zikloaren kasuan, Nafarroako herri gehiagotara hedatzea saiatu beharko zela uste da.	Programa, beste faktoreen artean, Organoen egoera aintzat hartuta antolatzen da. Ez organoa duten herri kopurua aintzat hartuta. Instrumentu gehiago berreskuratzen diren heinean aztertuko da programaren zabaltzea.
		Programak gainjartzearen sententzia existitzen da. Honi lotuta zenbait pertsonen sakabanaketa saihesteko kultura espazio bakarra izatea proposatzen dute.	Nafarroako Gobernuak programak urte osoan zehar programatzen dira. Beste erakundeekin elkarlana sustatuko da.
		Alde batera utzi izan ziren programa ezberdinak berreskuratzea interesgarria izango litzatekeela aipatzen da, hala nola biolinekoa edota eskola kontzertuak. Beste alde batetik, jazza bezalako musika garaikidea sustatzeko programak sortzearen beharra azpimarratzen da.	Nafarroako Orkestra Sinfonikoak jada hezkuntza programa burutzen du, beste orkestra batzuek egiten duten bezala. Nazioarteko musika lehiaketak berreskuratu ahal izango dira aurrekontuek horrela ahalbidetzen badute. Gainera, musika garaikidea jasoko duen arte eszenikorako eta musikarako zirkuitua ezarriko da.
		Oro har kultura ekintza eta zehazki musika ekintzen doakotasunak	Ekarpen hau iritzi pertsonaltzat ulertzen dugu baina ekintza

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
		hauen balorazioaren gabezia suertatu lezake publikoaren artean.	zuzenketarik gabekoa. Ikuskizun mota ororentzat tokia dago, doakoak izan edo ez. Zuzendaritza Nagusiaren irizpidearen arabera, espazio eszeniko itxietan burutzen diren ikuskizun profesionalak ordaindu behar izatea da. Kanean burututako ikuskizunak, profesionalak izan edo ez, oro har doakoak izan ohi dira.
		Jaialdiak oso estuki daude lotuta antzinako musika eta baita musika klasikoari ere, eta erakunde musikal berrientzat bertan sartzea oso zaila da. Honekin batera, publiko kantitate eskasa erakartzen dutela uste da. Jaialdi hauek sustatzeko erak hobetu behar zirela uste da, beste eratako artistak eta publikoa erakartzeko.	Beste programazio artistikoetan aintzat izaten ez diren diziplina artistikoen gainean jartzen du bere arreta Nafarroako Gobernuak. Zuzendaritza artistiko berrien barneratzeak, eredu artistiko berrien eta publikoa erakartzerakoan aldaketak suposatuko ditu.
Etorkizunera begira	Bilera sektoriala Musika	Nafarroan dagoen barne lehiak sektorearen artikulazioa zailtzen duela uste da, baita elkarlanerako ildoak ezartzea ere. Musika promozioarekin zerkusia duten agente ezberdinen arteko elkarlana sustatzea beharrezkoa dela uste da.	Nafarroako Gobernuak era honetako ekimenak bultzatu ditzake, baina abiapuntua sektorean bertan izan behar du.
		Musika ekintzak hezkuntza arloarekin lotzea beharrezkoa da, publikoaren kudeaketa landuz eta Nafarroako musika eskolen sarea probestuz, afizio eta publiko sortzaile papera ere izan zezaten.	Hezkuntza Sailarekin elkargune bat aurreikusia dago gai hauek lantzeko. Musika programek hezkuntza arloaren eta publikoaren sorreraren faktoreak ere aintzat hartzen dituzte.
	Bilera sektoriala Arte Eszenikoak	Kultura turismoa garatzearen bitartez Nafarroako konpainiak sustatzeko estrategiaren sorrera proposatzen da.	Nafarroako konpainien promozioa deialdien bitartez burutzen da, gertu dauden ferietan parte hartuz (Donostia, ...) eta baita hauetariko batzuek Nafarroako Gobernuaren programetan barneratuz ere.
		Formazioari dagokionez, eta zehazki Nafarroako Antzerki Eskolari dagokionez, ikasketa ofizialak izan beharko zirela uste da, Nafarroan kultura arloan goi mailako ikasketak existitzea ahalbidetuz.	Ikasketen ordenazioa Hezkuntza Sailaren konpetentzia da, gai hau jada helarazi izan zaiona.

ERANTZUNAREN ZERBITZU/SAIL ARDURADUNA: ZUZENDARITZA NAGUSIA

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Eskuragarritasuna eta Ikusgarritasuna	Lurraldekako Bilera Lizarra	Gazteei zuzendutako kultura bonoak sortzea, kultura ekintzetan gastatzeko.	Gazteei zehazki zuzendutako kultura bonoak sortzea ez dago aurreikusita, kultura zentro eta kultura programenganako eskuragarritasuna errazteko programak sortzea aurreikusita dago ordea. Nafarroako Museoak, Karlismoarenak, Baluartek eta Nafarroako Gobernuak berezko programek jada eskaintzen dituzte deskontu garrantzitsuak.
	Lurraldekako Bilera Altsasu	Herrialdeko ekipamendu, ekintza, kultura ekitaldiak, etab. entzako informazio sistema hobetzea.	Zuzendaritza Nagusiaren helburuetariko bat Erkidego osorako Kultura Agendaren sorrera da. Herrialde mailako ekintzak udaletxeen konpetentzia dira.
	Lurraldekako Bilera Doneztebe	Zonaldeko kultura ekintzen inguruko informaziorako sistema bat izatea, bertako kultura eskaintza ezagutu ahal izateko.	
Koordinazioa	Lurraldekako Bilera Altsasu	Sakanako Kultura Agente edo Herrialde Ordezkiaren postua sortzea, Sakanako Mankomunitatean oinarria izango zuena, Nafarroako Gobernuarekiko koordinazioa hobetzeko eta Iruñeko kultura Sakanara eta alderantziz hurbiltzea sustatzeko.	Izaera mankomunatuak duten koordinazioa postuak sortzea ez dago aurreikusita; hala ere, behar hau mankomunitateari helaraziko diogu herrialde ezberdinetan eskatua izan baita.
	Lurraldekako Bilera Altsasu	Kultura arloari lotuta Gobernuaren Ordezkaría postua sortzea, Haranari lotuta eta bertan egonkortua izango zena, jada existitzen den kulturaren ezagutza izango zuena eta elkargunea izango zena, hiritargoaren eta Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren arteko elkarrizketa zuzena ahalbidetuko zuena.	Postu berriak sortzea ez da beharrezkoa. Herrietan erabilgarriak diren solaskideak badira.
	Lurraldekako Bilera Lizarra	Zenbait herriren arteko komuneko kultura teknikariak izatea	Teknikarien kontratazioa herri konpetentzia da. Jada kultura teknikari elkartearekin lanean gabilta urteroko laguntza nominal baten bitarte eta formaziorako plan bat planteatuz eta hiru urteroko gehigarri bat ere.
	Lurraldekako Bilera Iruñea	Herrialdeko Kultur Etxe ezberdinen arteko antolakuntza eta koordinazioa bultzatzea.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira. Kultura arloa dela eta, Nafarroako Gobernuak eta tokiko erakundearen arteko koordinazioa sustatzeko foru baten sorrera aurreikusita dago.
	Lurraldekako Bilera Iruñea	Nafarroako Gobernuak mankomunatuak lanak bultzatu dezala, gestoreak eta azpiegiturak elkarren artean partekatutako izan daitezkeen eta era eraginkorrean erabiliak.	
Lurraldekako Bilera	Zonaldeko udaletxeen artean kultura zerbitzuen koordinaziorako sistema ezartzea.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira. Kultura arloa dela eta,	

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
	Doneztebe	Herrietan dauden kultura baliabideen data base bat izatea euren arteko mailegu eta elkarlana erraztearren. Udaletxe ezberdinen arteko elkarlanerako hitzarmenak sinatzea, bai zonaldean bai honetatik kanpo ikuskizunak herrien artean era ekonomikoagoan mugiaraztea ahalbidetuko zuena, edota herritarrak ikuskizun ezberdinetara gerturatzea ahalbidetuko zuena.	Nafarroako Gobernuko eta tokiko erakundeen arteko koordinazioa sustatzeko foru baten sorrera aurreikusita dago.
Kulturaren hedapen, eskuragarritasuna eta ikusgarritasuna	Lurraldekako Bilera Lizarra	Kultura azpiegituren gaineko ikerketak eta hobekuntza eta sortze plana burutua, elkarte ezberdinek espazio hobegoekin lan egin dezaten. Ikerketa hauek herri bakoitzeko azpiegituren eraginkortasuna nola hobetu ikertu beharko zuten. Kultura hedakuntzarako estrategia diseinatzea herrialde mailan, zonalderako kultura plataforma izango zen kultura agenda sortuz, honetarako teknologia berriak erabiliz. Zonaldeko kultura kolektiboen gaineko informazio sistema bat eratzea, programatzen den kultura eskaintzaren barne probestuak izan zitezen. Honekin lotuta, kolektibo hauek kultura instalakuntzenganako duten eskuragarritasuna hobetu beharko zuten, bai ekitaldietarako bai entseguetarako.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira. Kultura arloa dela eta, Nafarroako Gobernuko eta tokiko erakundeen arteko koordinazioa sustatzeko foru baten sorrera aurreikusita dago.
Hedapena, formazioa eta informazioa koordinazioa	Lurraldekako Bilera Iruñea	Kulturaren hedapenerako herrialdeko proiektu baten eratzea.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira.
Hedapena, formazioa eta informazioa	Foro Territorial Tuterak	Nafarroako Erriberako Kultura Agendaren eratzea.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira. Informazioa Agenda Nagusian barneratua izango da.
Publiko kudeaketa	Lurraldekako Bilera Tafalla	Sailen arteko programa baten garapena publikoaren kudeaketa dela eta.	Publikoarekin lan egiteko hainbat ekintza aurrekusiak izanda ere, sailen arteko lana egitea ez dago aurreikusita.
	Lurraldekako Bilera Zangoza	Kulturaren hezkuntzaren gaineko ikasgai bat izan beharko zen, Nafarroako kulturarena zehazki.	Ez da Kultura Sailaren konpetentzia.
Publiko kudeaketa formazioa	Lurraldekako Bilera Doneztebe	Lehenago antolatzen ziren formazioa sozialeko ikastaroentzat zeuden diru laguntzak berreskuratzea, biztanleriaren kultura formazioa sustatzeko.	Helburu honetarako ez dago aurrekonturik zuzenduta.
Besteak	Lurraldekako Bilera Lizarra	Vianako Printzea sari-banaketa Viana egoitza izatea.	Hurrengo urteetan Vianako Printzea sari-banaketa Oliteko Jauregian

GAIA	JATORRIA	PROPOSAMENA	MOTIBAZIOA
Programazioa	Lurraldekako Bilera Iruñea	Gazte eta eskola ikasleentzat berezko zirkuituak sortzea.	Hau burutzeko konpetentzia Hezkuntza Sailaren menpe dago; dena den, ekintza guztiak gazte eta eskolako ikasleen artean hedatzeko lan egiten dugu, honetarako faktore egokiak erabiliz Kultura Sailak antolatzen dituen ekintza guztietan, eta gazte hauei zuzenduta daudenak.
	Lurraldekako Bilera Zangoza	Epe ertainera herrialdeko kultura agenda sortu beharko zen, zonaldeko biztanleria mugiarazten saiatu behar zuena.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira. Informazioa Agenda Nagusian barneratua izango da.
Programazioa eta ekintzak koordinazioa	Lurraldekako Bilera Iruñea	Herrialde mailan kultura eskaintza jakin baten programazioa.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira.
Baliabide eta azpiegiturak	Lurraldekako Bilera Tutera	Arguedasen arte eszenikoekin zerikusia duten ekintzak antolatzeko espazio bat eratzea.	Ez dago aurreikusia.
	Lurraldekako Bilera Tutera	Herrietan dauden erakusketetarako espazioen inbentariatzea eta irudikatzea, gabeziak aurkitzea eta espazio berriak sortzeko eta daudenen zabaltzeko planak.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira.
	Lurraldekako Bilera Lizarra	Vianako Kultur Etxearen ekipamenduak hobetzea.	Azpiegiturak sortzeko edo eraberritzeko beharra urtero aztertua izango da.
	Lurraldekako Bilera Zangoza	Zangozako Herrialdeko eta Aurrepirinioetarako Kultura Koordinatzaile postua sortzea.	Herrialde mailako ekintzek Nafarroako Gobernuaren laguntza dute baina herrialdeko ekimenak izan behar dira.
	Lurraldekako Bilera Zangoza	Kultura Agenteen poltsaren eratzea udaletxeetako programatzaileak aholkatu ahal izan dezaten.	Tokiko konpetentziapeko ekintza da. Kultura kudeaketa gaineko oinarriko formazioa ezartzearen aukera aztertua izango da. KZN-VPIko langileekin edozein mementotan harremanetan jartzea posible da edozein zalantza edo galderarako.